

uk

191. zenbakia / 2011ko martxoaren 14a





Altzagako azoka zaharra (San Jeronimo kalea 13)

TXALOK aurkezten du

AITZIBER GARMENDIA
AINHOA GARAI

Baginaren BAKARRIZKETAK

EVE ENSLER

ZUZENDARIA BEGOÑA BILBAO

Sarrera
librea

TXALO



MARTXOA
19
LARUNBATA

20:00



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
HELBIDEA: Armetzi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
ERREDAKZIOA: Zuberero Iturburu, Julen Nafarrate,
Maitane Nerekan
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Fredi Paia,
Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martínez (94 491 13 37)
AHOLKULARITZA: Jokin Aspuru
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta



Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkartearen Topaguneko partaidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

<p>TRATU TXARREN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111</p>	
<p> Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia Kultura Saria Departamento de Cultura</p>	

Non zer

- GU GEU.
- IRUDIA. Martxoak 8 Berangon, antzerkia.
- LEHEN ETA ORAIN. Gorliz.
- TALAI. Beste begirada bat eskualdeari.
- ERRETRATUA. Gabi de la Maza.
- HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
- AGENDA.

SAKONEAN

- ALBUMA. Aratusteak Sopelan, Ander Deuna Ikastolagaz.
- ARGAZKIA. Atxazpe Mendi Taldea, elurra.
- BERBETAN. Begoña Mentxaka.
- FOTOGRAFIA. Haizea Amezaga.

KULTURA ETA AISIA

- ZINEMA. Opera, Algortako Kirol Portuko zineetan.
- MUSIKA. Arabiar musika euskal senez.
- LIBURUAK. *El contubernio nuclear*, Lemoiz liburua.
- KIROLAK. Getxo Artea, chore handiz.
- ELKARRIZKETA. *Itsasoruntz* ekimena.

AMAITZEKO

- NORA JOAN. Unai Taberna, Algorta.
- HOROSKOPOA.
- KOMIKIA. Dogan Gozel.
- DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- FLASH BACK. Portu Zaharreko neska-mutilak, 1981.
- AITORMENAK. Iker Muniain.

Azala: Haizea Amezaga

www.ukaldizkaria.biz



30 Begoña Mentxaka

Berbetan

Herriko historia biziaz egin dugu berbalditxo; bonba hotsez eta baserriko bizimoduaz aritu gara.



11 Gabi de la Maza



54 Iker Muniain



WWW.RENAULTLEIOA.COM



Tf. 682 466 466
www.leioarentacar.com

Leioa Berri Auto
HARTU TXANDA ONLINE-CITA ONLINE
www.renaultleioa.com
Tf. 94 480 46 02

Leihatila

> Aiala Elorrieta

Nomenclatūra

Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba-Álava dira hiru lurralde historikoen izen ofizialak, joan den otsailetik. Euskarazko grafia hutsa dute lehen biek, eta bitarikoa Arabaren kasuan (badaezpada, ez dadin inor despista). Bazen garaia! A Coruña, Ourense, Girona eta Lleidak 90eko hamarkadan zehar aldatu zituzten haien izen ofizialak, galiziar eta katalan formak bereganatuz, eta halaxe izan da, Illes Balears-en kasua ere. Garaipen historikoa hauxe, euskal nazionalismoaren urteetako erreindikazioa. Historikoa bai, zenbait hamarkada pasa behar izan direlako hain gurea kontsidera dezakegun eskubidea eskuratu ahal izateko. Iniziatiba honek Espainiako kongresuan aurrera egin ahal izateko jaso duen babes, ez da debaldekoa izan. Gogora dezagun bada, 2010 urte amaieran sozialista eta jeltzaleen arteko akordio paketearen barruan sartzen dela lorpen hau. Akordio horren muinean, Espainiar Estatuko aurtengo aurrekontuen onarpena dago: krisiari aurre egiteko, %7,7ko murrizketa jasan duten aurrekontu anti-sozialak, alajaina! Trukean besteak beste, nomenklatura aldaketa hau, eta hain sonatua izan den enplegu politiken sasi-transferentzia. Biak ere aspaldi gauzatu beharreko eskubideak, eta, inolaz ere trukatuak izatea merezi ez dutenak. Eta bitartean, zenbaitzuek, garaipena saldu nahi digute. Biba!

gu geu**Uda barri, epel ala euri?**

Hilaren 21ean ondo etorria egingo diogu udabarriari. Zuhaitzak loratzeko, tenperatura epeltzeko eta artile jertsea etxean uzteko garaia izan ohi da udabarria. Aurten barriz, “negubarria” ezagutu dugunez, koloretako loreei ondo etorri esan diegu daborduko eta amamak oparitutako jertsea armairutik atera ere ez dugu egin. Hala ere, Sopelan udabarri jai egingo dute martxoaren 26an eta Leioan Gazte Eguna ospatuko dute urtero lez. Izan ere, haize, euri, elur eta eguzkiaren metamorfosiak ez ditu gure jai eta ospakizun egutegiak aldatu. Udabarri epel zein euritsu izan, erromeriaren erritmora dantzatzan jarraituko dugu.

Eta Euskalmet-ek iragarpena egin bitartean: Getxo Euskalduntzeko Hitzarmena 25ean, Wanted Ideia Lehiaketara aurkezteko aukera, aratuste berantiarrak Berangon, Haizea Amezagaren Palestinako bizipenak...hori eta askoz gehiago gurean.

Aipamen berezia egin behar, berbalditxo gazi-gozoa oparitu digun Begoña Mentxakari. Gozoa, Algortako Lopetxene baserri inguruan bizitakoak ezagutzeko aukera eman digulako; gazia, bonba hotsek begietan utzitako arrastoa ikusi ahal izan dugulako.

Eta horrela, konturatu barik, badao beste zenbaki bat.

Ahaztu aurretik... zorionak errugbilariel!

UK-ko lantaldea**Iritzia**

Azken asteotan Afrikatik datozen eta egunkarien azalak betetzen ari diren barrien inguruko gogoeta luzatu digu Mikel Saratxo politologo algortarrak.

Afrika sutan dabil

Karabana aurrera doa, horregatik ari dira zaunka txakurrak. ريسيت تلفاقل

حبت بالليلو

Afrika sutan dabil! Hau da komunikabideen aldetik heldu zaiguna azkenengo asteetan. Idazten ari naizen komunikabide

«Badaude matxinada afrikar hauetan arreta piztu didaten elementu batzuk»

honi zor diodan leialtasunagatik ez naiz hasiko komunikabideen jarrera kritikatzeko, are gutxiago kondenatzeko. Ez dakit hartu dudana jarrera koherentea edo itxurakeria-
ren ondorioa den, hainbestetan errefusatu dudana sistemaren barneko sistemaren kritikatzailen jarrera nire egin baitut kasu honetan. Beharbada, bizi omen garen denboraldi berrien ondorio pragmatikoa izango naiz ni ere, batek daki. Hala ere, onartzen dudana jarrera posibilitista honetarik ere, badaude matxinada afrikar hauetan arreta piztu didaten elementu batzuk.

Lehenengoa, matxinada hauek hainbat

herrialdetan izan duten zabalte arina izan da. Berlingo harresiaren erorketarekin gertatu bezala, ez da egon analistarik gertaera hauek aurreikusi dituenik, nik dakidala ez, behintzat. Bigarrena, nazioarteko komunitatea deritzonaren erantzun bizkorra izan da. Izan ere, NBE-k Libian Gadafiren erregimenaren aldetik egon omen diren torturak eta atxilotze arbitrarioen berri eman zuen matxinadako lehenengo egunetan. Hala ere, inork ez dezala pentsa nire burua adierazpen hauen kontra kokatzen dudarik, ezta gutxiago ere. Zintzotasun osoz diot Informazioa benetakoa bada, poztekoa dela NBE-k izan duen arintasuna adierazpen horiek egiteko orduan. Baina, aldi berean harritzen nauena zera da; Nazio Batuen Erakundeak izan ditzakeen informazio iturriez daukadan ezjakintasuna ukatu barik, arraroa iruditzen zait NBE-k izan omen duen eraginkortasuna (arintasunari dagokionez), batez ere, Libiako gatazkari buruzko informazio zuzena lortzeko ez ezik, iturri “ofizial” zein “ez-ofizial”en aldetik zetorkiguna sinesteko edo ukatzeko hautua egiteko ere izan ditugun zailtasunak kontuan izanda. Edonola izanda ere, NBE-ri tortura salaketak egoten diren beste kasu guztietan eraginkortasun maila bera exijitzeari zilegi deritzot, eraginkortasun bera merezi baitute Tripolitik, El Kairotik edo Galdakaotik egiten diren salaketek, edo ez?

Eta, arreta piztu didan hirugarren elementua kultura espainiarraren ikurra den David Bisbalen hitzen isla soziala izan da, Egiptoko matxinadaren baitan piramideak hain hutsik ikusteak sortarazten zion samin aipatu zuenean.

Baina ez larritu, agian udarako orain arte hara oporretan joan garenean horren tiranoak iruditu ez zaizkigun erregimen diktatorial hauek ez baitira jada existituko, eta Egiptoko piramideak demokratik bezateko dira berriro ere. Demokrazia bedein-katua!

Mikel Saratxo
(Politlogoa)



TEARTO TEATRO. BERANGO, 2011KO MARTXOA

Lotura magikoa/ Ospakizun eta aldarrikapenek bete zuten Uribe Kosta martxoaren 8an. Berangon, Santa Anako antzoki barrian, “El feeling es así” antzerki emanaldia izan zen “Tearto” taldearen eskutik. Eskenatokian, egunerokotasunean bizi ditugun hamaika sentsazio eta egoera lotu zituzten emakumezko protagonista biek: barreak, dantzak, konfesioak, kritikak, txantxak, maitasuna... Baina berbakaz azaldu ezin den “feeling” sentimendua izan zen antzerki saioaren ardatza: pertsonen artean sortzen den dardara, lotura magikoa... badakizu zertaz ari garen, ezta? ○ / Argazkia: Asier Mentxaka



Kopiak **SALGAI** bulego barrian

Martikoena 16, 2. solairua

Algorta (Getxo)

Alangoko Osasun Zentroaren alboan

Uribe Kostako aldizkariaren ekoizpena



[lehen]



INDALECO OLAGUEN

[orain]



ASERMENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / GORLIZ

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > palmondoak Puerto Banusen



2010eko abendua, Getxo

Testua: **Josu Arroyo** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: *Mutil koxkor bat itsuaurreko*

Pare bat urte Marbella aldean; ez legoke txarto, tira!

Hango luxuak txiki egiten du eguzkiaren distira.

Kirol portuak, markako autoak... lau handikiren neurrira.

Baina, ai ene, noraino joan naiz palmondo hauei begira?

Argazkikoek labela dute, hauek getxoztarrak dira!

Arrantzaleen helmuga eta abiapuntua zena, gaur egun dugu Getxo aldeko leku populatuena.

Lehen, sarea, aingura, soka... Orain, zinema, taberna...

Kirol portua eraiki zuten eta aldatu zen dena.

Denborak arrunt bilakatzen du paisaiarik arrotzena.

Areetatik Portu Zaharrera, itsasoko haize fina; bazter guztiak jendez beteta, bizikleta eta patina...

Askok ukatu egingo dute, nahiz izan ukazina:

herri berri bat eraiki dugu, Puerto Banusen berdina, batzuen nahiak ase daitezen, beren-beregi egina.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz



COMERCIAL
de LIMPIEZA
VILLAR S.A.

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Lan osogarria
- Elikagai Industriak higienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea.
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea.



Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo) Tf. 94 470 06 69 Fax.94 443 78 81 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

korrika kulturala > hamaika ekimen Uribe Kostan, berotzen hasteko



Sekula bai! antzezlaneko aktoreak

Apirilaren 16an iritsiko da Korrika eskualdera, eta dagoeneko, beroketak egiten hasi dira Korrika Batzordeak. Korrika aurkeztuko dute Leioan martxoaren 24an, Erandion martxoaren 25ean azoka zaharrean eta Algortan apirilaren 1ean, Piper's tabernan. Gainera, kultur ekimenez bete dute egutegia Korrika heldu artean. Sopelan hilaren 27an egingo du Berbatxangoa Aitxu! Elkartek, eta apirilaren 2an, Esaera Zaharren Txapelketa izango da. Getxon bakarrizketak egingo dituzte, apirilaren 7an Algortako Piper's tabernan, eta 14an, Romoko "Billares" tabernan. Erandion *Sekula bai!* antzerki-kabareta ikusteko aukera dago apirilaren 5ean azoka zaharrean, 20:00etan. Leioan, apirilaren 7an Bertsorrunba eta 14an Flamenkottakun saioak izango dira, Ganeko tabernan. Korrika Txikiak apirilaren 15ean egingo dituzte, eta Korrika igaro egunean, 16an, egun osoko jaialdiak prestatu dituzte. *Maitatu, ikasi, ari... euskalakari!* ○

ekimena > apirilaren 2an izango da "Bizkaiaren defentsarako" martxa



Martxoaren 26an aurkeztuko dute martxa Armintzan, eguerdian

Apirilaren 2an eta 3an zeharkatuko ditu Uribe Kosta, Ezkerraldea eta Meatzaldea "ingurumena erasotzen duten makroproiektuen" aurkako eta "Bizkaiaren defentsarako" martxak. Bizkaia Benetan Maite koordinadorak antolatu du, lurraren defentsan diharduten zenbait taldek osatua. Martxoaren 26an aurkeztuko dute ekimena Armintzan. Oinarri bi ditu, batetik, "ingurumena erasotzen duten makroproiektuak gelditzeko beharra", eta bestetik, "makroproiektuak dituzten herrien erabakitze eskubidearen defentsa". Martxak apirilaren 2an zeharkatuko du eskualdea, Plentziatik Lamiakora, ondoren igaroko da Ezkerraldera eta Santurtzin egingo du gaua. Biharamunean abiatuko da Muskizerantz. "Bizkaia jasagarri eta orekatu baten" alde atxikimenduak batzen ere ari dira. ○

saiazgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa



...harria


...lehengo garaiak...

...itsasoa

www.saiaszgetaria.com / info@saiaszgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

[talaia]

euskara > Labayru hiztegiaren on-line bertsioa osatu dute



www.labayru.org gunean kontsulta daiteke hiztegia

Orain dela urte bi interneten bere txokoa bilatu zuen Labayru hiztegiak eta ordutik kontsulta daiteke on-line. Baina urrats bat gehiago egin du orain eta osatuago dator. Aurrekoan ez zuten hiztegiaren edukia oso-osoan ipini, oraingoan formatu osotuagoa eskaini diote erabiltzaileari: hiztegi kontestuduna; hitz sarrerei adibideak eta erabilerarako aholkuak gehitu dizkiete, euskara-gaztelania zein gaztelania-euskara alderdiak, biak ugarituz. Euskarazkoak ia 70.000 sarrera eta azpisarrera ditu, gaztelaniakoak 60.000 edo. Adibideak 75.000 dira gitxi gorabehera, eta 40.000 bat lokuzio eta 50.000 sinonimotik gora ditu hizkuntza bietako bakoitzean. Gainera, berben adierak ez ezik, testuinguruaren arabera erabilerak ere ematen ditu hiztegiak. Izan ere, ahozkoari aparteko garrantzia eman gura izan diote Labayruko arduradunek, ahozko erabilera-modu desberdinak txertatuz. ○

arte eszenikoak > Harrobia Eskena profesionalentzako zentroa Bilbon



Bilboko Otxarkoaga auzoko Mariaren Izen Santua eliza izandako eraikinean egin dute Zentroa

Ekoizpen Eszeniko Profesionalen Berrikuntza Zentroa egin dute Bilbon, Otxarkoaga auzoko Mariaren Izen Santua eliza izandakoan: Harrobia Eskena. Eraikina barritu dute eta apirilean zabalduko dute Zentroa; alorreko 24 konpainia biltzen dituen Eskena elkarteak kudeatuko du. Arte eszenikoen profesionalak laguntza jasoko dute Zentroan, sorkuntza prozesuaren hastapenetik lanaren estreinaldira, lanen kalitatea eta artisten lan baldintza egokiak bermatzeko. Enpresa gisa aritu gura duten taldeak ere lagunduko dituzte, izan ere, Bilbo inguruan harrobi sendoa sortu gura dute. Horretarako, eta antzezlanetarako aretoak eta entsegu gelak egiteaz gainera, materiala ere eskura izango dute artistek. Beraz, opari ederra jaso du Eskena elkarteak hamabosgarren urteurrenean. ○

[erretratua]



"Momentu honetan, gehien ikusten ari den kanta Zea Maysen 'Negua joan da ta' da"

Gabi de la Maza > Youtubeko "Txatxangorria" erabiltzailea

Nork ez ditu inoiz abestu Youtuben esekita dauden euskal kanten karaokeak? "Txatxangorria" ezizenagaz, Gabi de la Maza gorliztarra 2008. urteko uztailaren 1ean hasi zen Youtubera bideoak igotzen: "Sorotan Beleren 'Arratsalde honetan' izan zen igo nuen lehenengo kanta, eta handik egun bira, Herbeheretatik eskerrak emateko lehenengo mezua jaso nuen". Egun, arruntagoa egiten zaio atzerititik mezuak jasotzea. Izan ere, bere kanalak egunero 15.000 bisita jasotzen ditu, eta erreferente bihurtu da: "Gehien ikusten diren karaokeak umeen kantak dira: 'Pintxo-pintxo' da kantarik ikusiena, 340.000 bisitagaz. Momentu honetan, gehien ikusten ari den abestia Zea Maysen 'Negua joan da ta' da". Musikagaz duen lotura aspalditik datorkio gorliztarrari. Izan ere, 1976. urtean plazaz plaza aritu zen Jabi Etxeandiaz batera: "Kalimotxoa asmatu zen urtean, 'Warren' ezagutu eta euskal kanten bertsioak abesten ibili ginen. Fermin Valenciaren 'Txatxangorria' kanta hartu, nire erara moldatu, eta jaietan hedatu nuen". Baina egun, bere karaokeetan badago lar errepikatzen den irudia: Alacanten dagoen Xabi semearena: "Euskal Herrian hainbat injustizia egiten ari da, eta badaude kanta batzuk injustizia horiek adierazten dituztenak: Ken Zazpiren 'Malen' edo 'Itsasoa gara'... Kanta horiei argazkiak jarritz nire ekarpena egiten dut, sufritzen ari garen gaia hauxe delako, eta sentitzen duguna delako". ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Julen Nafarrate**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrek + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Areetan

Villa de Plentzia, 6.
T 94 464 90 87
E areeta@cianoplan.es



BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

GEHITU KULTURA, erdu!

Getxo euskalduntzeko hitzarmena izenpetuko dute gutxienez **21 kultur taldek**; Bizarra Lepoan elkarteak Udaleko Euskara Zerbitzuagaz sustatutako **ekimena handituz doa**

Martxoaren 26an sinatuko dute hitzarmena kultur taldeek eta Udalak. Euskararen erabilera bultzatu gura dute ekimen honeguz. Elkarteek konpromisoak hartu eta Udalak eskainiko dizkie bitartekoak horiek aurrera ateratzeko.

2003an sortu zuten GEHI Getxo Euskalduntzeko hitzarmena Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak eta Udaleko Euskara Zerbitzuak. Batez ere aisialdian lanean zebiltzan taldeak sinatu zen hitzarmena, 23gaz. Ondoren zabaldu zieten bestelako alorretan ziharduten taldeei: kirola, merkataritza eta irakaskuntza. Orain, kultur arloko edo kulturaren inguruan dabilzan elkartei zabalduko diete hitzarmena, euskara sustatzera anima daitezten. 2003an aisialdi alorrean zebiltzan taldeak barneratu dituzte orain ere, multzo hura osatuz.

Baina zergatik orain? Iaz azterketa soziolinguistikoa egin zuten kultur arloko taldeetan euskararekiko egoera aztertzeke. Getxoko 74 elkarteren artean zabaldu zuten inkesta, eta horietatik, 56k erantzun zuten. Emaitzak argigarriak eta arduratzeke modukoak izan dira: Erantzun zuten elkarten artean %34 oso euskalduna edo nahiko euskalduna dela esan daiteke, nahiz eta gaztelera erabiltzen den, baina %46an ez da inoiz edo ia inoiz erabiltzen euskara ahozko harremanetarako. Nabarmenezkoa da euskararen erabilera askoz altuagoa dela umeak eta gazteakaz



Hainbat Dantza Taldek parte hartuko du izenpetzean

jarduerak dituzten elkarteetan. Datuok ikusita, GEHITU KULTURA egitasmoa abiatzea erabaki dute.

Helburu nagusiak dituzte herriko kultur jardueretan euskararen erabilera sustatzea, umeentzako eta gazteentzako

«Inkestatutako taldeen %34 euskalduna da, baina %46an ez da inoiz edo ia inoiz erabiltzen euskara»

kultur jarduerak euskaraz egin daitezten bultzatzea, eta kultur elkarteetan euskararen erabilera sustatzeko, Udalak eskaini beharreko laguntzak eta zerbitzuak definitzea.

Hiru hitzarmen mota izenpe ditzakete taldeek, euren asmoen eta egoeraren arabera: A erdua, minimoena; B erdua,

aurrekoa barneratzen du baina ume eta gazteengan eragina izan gura du, eta C erdua, erabileran hizkuntza nagusitzat euskara bultzatzen duena. Hitzarmenok sinatzean, taldeek hainbat konpromiso hartuko dute eta Udalak eskainiko dizkie bitartekoak konpromisook aurrera ateratzeko.

Dagoeneko elkarte gehienakaz batu dira sustatzaileak eta gutxienez 21taldek sinatuko du hitzarmena. Martxoaren 25ean egingo dute ekitaldia Fadura kiroldegiko areto nagusian, 19:00etan. Irekia izango da.

Baina biharamunean jarraipena egitea egokitzen da, hitzarmena paperean gera ez dadin. Horretarako arreta eskainiko du Bizarra Lepoan elkarteak, eskura dauzkaten bitartekoakaz zalantzak argituz eta euskara sustatzeko bidean lagunduz. ○

64 enpresa barri 2010ean

Getxolanek 2010eko balantzea aurkeztu barri du



Getxolanek Algortako San Martin kaleko 17. zenbakian du egoitza

2010eko kontratazioen eta enpresa barrien balantzea aurkeztu barri du Getxolan Ekonomia Sustapen eta Enplegu Zerbitzuak. Lehenengoei dago-kionez, guztira 307 pertsonen kontratazioa ahalbidetu zuen Getxolanek joan den urtean. Horri, datozen urteetarako aurreikusita dauden kontratazioak gehitu behar zaizkie; alde batetik, Getxolanen bidez sortuko direnak eta, bestetik, beste ekimen batzuetarako (BiscayTIK, Andra Mariko Agirien Gestiorako Bikaintasuneko Gunea, Fadurako Ostalaritza-Astia eta Enplegu Proiektua, arropa batzeko zerbitzua, e.a.) 2015a baino lehen aurreikusitako 163 kontratazioak.

Enpresa barrien sorrerari dagokionez, 2009an baino 28 enpresa gehiago sortu ziren joan den urtean. Guztira, 64 enpre-

sa barri sortu zituzten getxoztarrek Getxolanen laguntzagaz; horiek 100 lanpostu sortu zituzten, 2009an baino %85 gehiago. 51 lanpostu gizonezkoentzat izan ziren eta gainontzekoak emakumeentzat. Enpresen %56 emakumezkoek sortu zituzten, %27 Merkataritza alorrean, %21 Lanbide Zerbitzuan eta %13 Ostalaritzan.

343 enpresa proiektu barri garatu ziren 2010ean eta, horietarako, 891 tutoretza indibidual egin zituzten. Gainera, taldeko zazpi ekintza (*“Aurrekintza”*) jarri ziren martxan, etorkizuneko ekintzaileei enpresa gestioari buruzko informazioa emateko. Azkenik, Getxolanek, enpresa idearen bideragarritasuna aztertzeke emandako zerbitzuan, 769 tutoretza indibidual egin zituzten. ○

BERDINTASUNEN DIRU LAGUNTZAK 19A ARTE

18.714 euro zuzenduko ditu Udalak emakumeen parte-hartze politikoa eta soziala errazten duten programetarako eta udalerrian gizonen eta emakumeen berdintasuna bultzatzen duten proiektuentzako. Deialdian parte hartzeko baldintza bi bete behar dira: pertsona fisikoak edo diru irabazteko asmorik gabeko erakundeak egoitza soziala udalerrian izatea eta aipatutako helburua duten proiektuak edo programak aurrera eroan gura izatea. Eskaerak martxoaren 19a arte aurkez daitezke Udaletxean zein Herriarren Arreta Bulegoetan.


AUTOBUSA AREETATIK LOIUKO AIREPORTURA

Bizkaibusek bost zerbitzu barri martxan jarriko dituela iragarri zuen otsailean. Horietako bat, Getxo eta Loiuako aireportua lotzen dituen da. Martxoaren 1ean jarri zen zerbitzua martxan; Areetatik, Bizkaiko Zubitik, urtergo da autobusa eta Leioan geldialdiak egingo ditu. Egunero erabil daiteke zerbitzua 06:00-24:00 bitartean. Autobusak orduro ateratzen dira. Gainontzeko lau linea barriak, Mungialdea, Galdakao eta Basauri, Muskiz eta Bilbo eta Loiu eta Bilbo lotuko dituzte.

KIROL IKASTAROETAN ESKAINTZA HANDITUTA

Martxoaren 24an amaituko zaie Gizarte Zerbitzuen arloan behar egiten duten erakunde, elkarte eta antolakundeek Udalak emandako diru laguntzak eskatzeko epea. Laguntza irabazi asmorik bako elkarteek eskatu ahal izango dute, Jaurilaritzan, Foru Aldundian edo Getxoko Udalean izena emanda badaude. Ondoko jardueretarako emango dira laguntza: azterlanak egiteko, baztertuak dauden edo baztertuak izateko arriskuan dauden kolektiboentzako, herritarrei informazioa emateko, sentsibilizazio proiektuetarako eta oro har Udaleko Gizarte Zerbitzuen jardueraren eremuaren barruan dauden proiektu guztientzako.

Etxeart
Eraikuntza / Barrikuntzak
Zurezko Egiturak



Sagastikoetxe Industrialdea
Etxalde 2 - Pabiloi 11
48630 Gorliz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 946 773 144



<http://www.etxeart.com>

Kepa Garraza > artista plastikoa

“Artearen munduan sortu diren mitoen gaineko hausnarketa bultzatu gura dut”



Torrene erakusketa aretoan dago ikusgai Garrazaren bilduma

Artearen eta haren mitifikazioaren gaineko hausnarketa planteatzen du Kepa Garrazak (Berango, 1979) “Shinning Star” erakusketan. Martxoaren 31ra arte egongo da ikusgai, Torrene erakusketa aretoan. Bilduma honetan, bere alter egoa sortu du berangoztarrak, eta 50. hamarkadan jaiotako Kepa Garraza hipotetikoaren bizitza kontatzen du, artearen ikono garaikidea bihurtzen den arte. Asmatutako bizitza horretan, Francis Bacon, Andy Warhol edo Debbie Harry artistak ezagutuko ditu, artearen kontzeptua kolokan jartzen duen jolasa sortuz.

—Zer ikus daiteke “Shinning Star” erakusketan?

—Nire proiektu berriaren lehenengo obrak ikus daitezke erakusketa honetan. Fikziozko alter ego baten bizitza kontatzen dut, fikziozko Kepa Garraza baten bizitza, hain zuzen. Ni 1979. urtean jaiotzen, baina nire alter egoa 1953. urtean jaiotzen, eta bertan 70. hamarkadaren akabuan eta 80. hamarkadaren hasieran bizi zuena kontatzen dut, 2010. urtera arte. Erakusketa honetan bilduma osoaren laurdena bakarrik aur-

keztu dut, 1978. urtetik 1985. urtera arte. Denbora aurrera doan heinean, bildumak aurrera egingo du eta pertsonaia, hots, ni neu, zahartzen eta loditzen joango da...

—Nondik datorkizu alter egoa sortzearen ideia?

—Nire ezinegonen parte da. Nire obrak beti izan ditu hiru edo lau ardatz eta XXI. mendeko artistaren identitateagaz izan dute harremana beti. Mota honetako kontuei buruz hausnarketa egitea gustuko dut: artistaren mitoak, artearen

munduan dauden elementu ezberdinak, snobismoa, superizarraren figura... Ez bakarrik artearen munduan, kultura eta kirolaren munduan ere bai. Mito horiei buruzko hausnarketa bultzatu gura dut, eta horretarako modurik onena zu zure istorioaren protagonista izatea da, zuk erabakitzen duzulako zer izan gura duzun eta noraino heldu gura duzun.

—Fikziozko Kepa Garrazak bizi dituen esperientziak bizi gura zenituzke?

—Hein handi batean izan daiteke, baina horren erantzuna ikuslearen esku uztea gurarago dut. Nik sortzen ditudan

«Gurago dut ikusleak asmatzea zeintzuk diren nire asmoak»

istorioak beti dira irekiak, ez diet inoiz amaierarik jartzen. Gurago dut ikusleak asmatzea zeintzuk diren nire asmoak eta esan gura dudana. Niretzat ezinbestekoa da publikoarentzat ulergarriak diren mezuak zabaltzea, ez bakarrik artean espezializatua den ikuslearentzat. Baina, aldi berean, ikusleari esfortzua eta inplikazioa eskatzen diot. Dena esanda ematera oso ohituta gaude, norabide baka- rreko informazio zuzenera. Apurka, ikusleak informazio kontsumitzaile bihurtzen ari dira.

—Zure bildumetan, beraz, pasiboak ez diren ikusleak eskatzen dituzu.

—Hori da, informazioarekiko dependentzia duten ikusle pasiboak sortzen ari dira, estimuluen beharra duten ikusleak. Eta arraroa den arren, informazio hori eduki aldetik hutsik dago. Informazio kontsumitzaile handiak gara, baina gero informazio hori aztertu ostean konturatu- zen gara funtsik bakoa dela. ○

Info+: kepagarraza.com

Wanted, zure ideien bila

18 eta 30 urte bitarteko gazteek ideiak aurkez ditzakete apirilaren 8a arte



Joan den urteko irabazleak, Guaytorrok egitasmoa egileak

Gazteria Zerbitzuak Wanted 18 eta 30 urte bitarteko gazteentzako Ideia Lehiaketa martxan jarri du hirugarren urtez. Martxoaren 21etik apirilaren 8a arte egongo da zabalik izena emateko epea. Getxoko bizitza soziala, ekonomiko edota kulturala aberasten laguntzen dituzten proposamenak aurkeztu ahal izango dira eta formato ezberdinetako egitasmoak onartuko dituzte: jaialdiak, film-laburrak, erakusketak e.a. Aurkez- teko, gutxienez hiruko taldeak osatu behar dira. Guztira, 15.000 euro banatu- ko dituzte saritan; horrez gain, beste motatako laguntzak eskainiko dituzte

proiektuak martxan jarri ahal izateko: aholkularitza, trebakuntza e.a.

Deialdiaren oinarriak eta proiektuak aurkezteko txantiloak, Herriarren Arre- tarako Udal Bulegoetan, Gazte Bulegoan eta www.getxo.net webgunean eskura daitezke. Interesatuak, zer egin gura du- ten azaldu beharko dute aipatutako txan- tiloietan, gidoi modura. Ondoren arlo ezberdinetako profesionalen gomendioak entzun eta ekarpenak jaso eta gero, barri- ro idatzi eta aurkeztu ahal izango dute.

2009tik, bost izan dira lehiaketari esker aurrera egin duten egitasmoak. ○

info+: 94 466 03 53

OLGETAN EUSKARAZ ETA TELP EGIZUREN ESKUTIK

Egizu Getxo Euskaldun-eko lagunek aukera barri bi prestatu dituzte martxorako. Alde batetik, *Olgetan euskaraz* egitasmoari esker, astean behin 45 minutuz, 2-3 urteko seme- alabakaz batera talde txikietan euskaraz jolastu eta abesteko aukera emango diete gurasoei. Horretarako, martxoaren 15ean Romoko ikastetxean eta 16 eta 17an Zaba- la eskolan batuko dira. Guraso eta umeek koordinatzaile baten laguntza izango dute eta zerbitzua doan izango da. Bestalde, hi- laren 16rako, “*TELP: Egunerokotasunean euskaraz...ahalik eta erosoan!*” hitzaldia an- tolatu dute, San Nikolas Ikastolan, arrastiko 18:00etan.

Info+: www.egizu.org

KULTUR EKIMENETARAKO DIRU LAGUNTZAK

Udalak udalerriko kultur elkarteei urteko diru laguntzak emateko izen-emateko epea zabaldu du. Horretarako aurten, 2011n, 105.000 euro zuzenduko ditu. Alde batetik, erakunde eskatzaileen funtzionamendu arruntaren 2011ko programako jarduerak lagunduko dira eta, bestetik, erakunde eskatzaileen gastu arruntak. Eskabideak Udaletxeko Erregistro Orokorrean, Herriarren Arretarako Bulegoetan eta Kultur Etxeko Bulegoetan aurkeztu beharko dira. Informazioa eta eskabide ereduak Udaleko webgunean daude eskuragarri.

ANTZERKI EMANALDIAK UME ETA HELDUENTZAT

Andres Isasi Musika Eskolak hiru antzerki emanaldi hartuko ditu martxoan. Alde ba- tetik, hilaren 19an, “*de 16:00... a 18:00H*” lana ikusi ahal izango da Totum konpainia- ren eskutik eta V “Emakumeak eszenan” zirkuituaren barruan. Emanaldia 19:00etan izango da eta sarrera 3 eurotan eskura daiteke dagoeneko. 26an, Makiescena taldeak “*Ecografías*” antzezlanak aurkeztuko du 20:00etan; sarrerak 8 eurotan eskuratu ahal izango dira aldeaz aurretik. 27an, Pen- tacion taldeak “*Uuuuu!!!*” umeentzako lana eskainiko du, 18:00etan, 4 euroren truke.

lagusana
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
lagusana@lagusana.net

Jorge Flores > Ciberbulling gaien aditua

“Normalean bullinga ekintza digitalak osatzen du, baina sarean hasia ez da beti aldatzen toki fisikora”

Internet eta adinez txikioen arloan urteak lanean daroaz Jorge Floresek. Martxoaren 18an parte hartuko du Eskola elkarbizitzarako proposamen barriak jardunaldian Kultur Leioan, ciberbullingari buruz arituko da.

—Ciberbulling gaia nahiko barria da, baina azkar garatzen ari da.

—Gazteak gero eta lehenago hasten dira internet erabiltzen, gero eta denbora gehiagoz. Hemen orain hasi da gaiaz berba egiten, baina ez da barria eta ondorio oso larriak eragin ditzake. Hitzaldian bullingetik bereizten duten faktoreez jardungo dut, aurrea hartzeko neurriez, eta eraso gertatzekotan, nola bideratu.

—Zeintzuk dira berezitasun horiek?

—Bullinga ohiko eskola-jazarpenetik bereizteko hiru baldintza bete behar dira: denboran jarraikortasun batez ematea, nahita egindakoa izatea eta erasotzaileen aldetik nolabaiteko nagusitasuna egotea. Ciberbullingaren kasuan, jarraikortasuna desberdina da. Batzuetan, nahiz eta eraso bakarra gertatu, sarean luzaroan irauten du, eta horrek eragiten du ondorioek irautea. Bigarren baldintza bai betetzen da: Ciberbullinga nahita egin behar da. Eta hirugarrena, nagusitasuna, ciberbu-



info+: www.pantallasamigas.net

llingean ez da fisikoa, batzuetan ezta teknologikoa ere. Ohiko bullingaren kasuan, eskolak neurriak hartu behar ditu, baina ciberbullingean mugak gaitzen dira, asteburuan eta ehunka kilometrorra egonda ere gerta baitaiteke eraso. Gainera, erasotzaileek presio handia dauka. Klasean gertatuz gero, handik kanpo babestuta dago, baina interneten ez dago ihesbiderik, eta sare sozialetan inporta zaizun jendearen aurrean barre-

garri geratzen da. Gainera, ez dute zertan elkar ezagutu, hau da, erasotzaileak laguntza eska dezake beste norbait iraintzeko, hirugarrenek ezagutu ez arren. Esan behar da emakumeen artean ematen dela eraso gehiago interneten.

—Batera ematen dira beti?

—Normalean bulling kasu bat ekintza digitalak osatzen du, eskura dago-eta. Gatazka ere sor daiteke sarean eta espazio fisikora lekualdatu gero, baina ez beti. ○

Badator gazteen eguna!

Zortzigarrenez antolatu dute **Gazte Eguna** Leioan, **martxoaren 26rako**



Baketazo taldeak joko du

Eta badira zortzi! Gazte Eguna kaskortzen hasi da Leioan. Aurtengoa aurreratuta dator, martxoaren 26an izango da eta egun osoarako ekimenez beteta dator egitaraua: “*Bildu eta mugitu, Leioa bizibarritu!*”.

Gazte Asanbladak antolatuko du Gazte Eguna baina herriko gazte koadrilak gogotsu parte hartuko dute ekimen zabalean. Gazte guztiak parte hartzea bultzatuko dute, izan ere, “*herriarena da Gazte Eguna eta herriko gazteak dira odola eta mamia!*”.

Eguna goizez hasiko da, koadrilen arteko olinpiadakaz. Koadrila bakoitzak taldea osatu eta parte hartzera animatu dituzte. Gainera, denak batuko dira

ondoren, herri bazkarian.

Baina ez uste siesta egiteko tartarik utziko dutenik. Bazkalondoa gazte tribalean jokatu ahaliko da eta euskarakean abestu. Sakoneta eskolan izango dira goizeko ekimenak. Horren ostean hasiko da kalejira eta poteoa herrian, batukadaren laguntzagaz. Bidean proba sorpresak egingo dituzte koadrilentzat.

Musika ezin falta daiteke eta kontzertua 20:00etan hasiko da, Plaza Gorrian. Herriko hiru taldek joko dute aurrea: The Banisters, Baketazo eta Estrikinak. Ondoren hasiko da erromeria eta bien artean egingo dute ekitaldia. Ekimenagaz Leioan alternatibak sor daitezkeela erakutsiko du Gazte Asanbladak. ○

AZKEN DANTZARIAK 25EAN ETA 27AN

Ataraxia obraren estreinaldiagaz hasi zen Dantza Zirkuitua Kultur Leioan. Baina oraindik badago zer ikusi, izan ere, martxoaren 27ra arte luzatuko da. Dagoeneko La Intrusa dantza taldea eta Organik taldeak aritu dira taila gainean, baina talde bi igoko da taulara hilaren azken asteburuan: L'explose eta Maduixa Teatre. Lehenak martxoaren 25ean eskainiko du *En otra parte* obra, 20:30ean. Sartzea 10 euro ordaindu beharko da. Bigarrena, barriz, birritu arituko da, martxoaren 27an; eguerdiko 12:00etan eta arrastiko 18:00etan antzeztuko du *Ras!* lana. Oraingoan merkeago izango da, 5 euro ordaindu beharko da sartzea.

AEB-TAKO ZINEA KULTUR LEIOAN, MARTXO OSOAN

Perseo Zineforumak AEBtako filmak ekarri ditu martxo honetan. Hil osoan zehar proiektatuko dituzte pelikulak, martitzenero. Hilaren batean eman zuten *Madres e hijas*, eta 8an *Lars y una chica de verdad*. Martxoaren 15erako aukeratu dute *Gracias por fumar*, 22rako *Tenderness*, eta 29rako, *Libranos del mal*. Emanaldi guztiak hasiko dira 20:00etan eta 2 euro ordaindu behar da sartzea.

Info+: www.kulturleioa.net

ARRETA PSIKOSOSIAL ZERBITZUA INDARTUTA

2009an abiatu zuten arreta psikosozial zerbitzua Udaleko Zerbitzu Sozialek. Egundeko zerbitzua izan zen hasieran, baina aurreko egun osora zabaldu dute, eta horretarako, 52.000 euroko aurrekontua bideratu dute. Etxean gatazka bizi zuten emakumeei zuzenduta dago zerbitzua, baina kasuak aztertuz, familia kideek ere parte hartzeko beharra antzeman zuten profesionalak. Hortaz, zerbitzuaren hartzaile kopurua handitu da denbora gutxian, horregatik hartu ei dute erabakia egun osora zabaltzeko.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA



Carrefour

Viajes

Bidaia-agentzia berria Leioan

Estartetxe 19, Tf. 944 63 82 42

es_viajes1375@carrefour.com

Bidaiak guztien eskura



Luberr Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erando (Blzkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net
www.luberr.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarrizte lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarrizte, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

[erandio]

Arantza Foces > Dislebi Euskadiko Dislexia Elkarteko kidea

“Oso garrantzitsua da dislexiaren diagnostikoa ahalik eta lasterren egin eta tratamendua hastea”

Dislexiari buruzko hitzaldia eskainiko du martxoaren 25ean Dislebi elkarteak, Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean, 18:00etan. Desoreka horri buruz gehiago jakin dugu elkarteko kide baten laguntzaz.

—Zer egiten du Dislebiak?

—Familiei, eta beharra edo interesa duenari ematen diogu informazioa: zer da dislexia, zelan lagundu umeei etxean, zer eskatu eskolan lagundu ahal izateko e.a. Ikastaroak ere egiten ditugu. Familia batzuek sortu zuten dislexiadun umeei laguntzeko, laguntzarik eta non galdetu ez zegoelako.

—Ohikoa da dislexia, arazoa ulertzen dugu, nola detektatzen da?

—Uste baino gehiago, %5 edo %10ekoa, eskola porrotaren arrazoi nagusienetakoa. Informazioa zabaltzen dugu, baina zoritxarrez, denek ez dakite zelan lagundu, horretarako gaude gu. Diagnostikoa egiteko umeei irakurtzen jakin behar dute, ikusteko bi urteko atzerapena dutela bere adinekoen aldean. Baina txikitatik hainbat alarma seinale dago, hiru urtetatik aurrera nabaritzea dago, eta beraz, adi egon gaitezke ordutik.

—Zer da dislexia, nola eragiten du?



Martxoaren 25ean egingo dute hitzaldia Josu Muruetan

—Letrak aldatu, hitzak txarto banatu edota hurrengo hitzagaz nahastea hori ere dislexia da. Irakurtzeko zailtasun handia dakar, irakurtzen dena ulertzeko arazoak sortzen dira, eta horregaz batera, idazteko arazoak, diskalkulia e.a. Dislexiadunek aukera handiak dituzte bestelako desoreka batzuk ere izateko, eskola porrotaren arrazoietakoa bat da.

—Lagunduta, egoera hobe daiteke?

—Lagunduz bai, baina dislexia ez da gaixotasuna, desoreka baizik. Horregaz

jaio eta hiltzen da dislexiduna. Laguntzagaz hobetzen du, baina ez da sendatzen. Horregatik oso garrantzitsua da diagnostikoa ahalik eta lasterren egitea eta tratamendua hastea.

—Horretaz jardungo duzue hitzaldian?

—Isabel Molina Zelaia pediatriak eman-go du, eta dislexia azaltzeko, hipotesi neuro-biologikoa azalduko du. Nik esandakoan sakonduko du eta iradokizunak emango ditu jakiteko zelan lagundu dislexiadun umeei. ○

Merkatariakaz aurrera

Herriko komertzioen hutsuneak aztertuko ditu **aditu batek** sektoreari laguntzeko



Herriko 40 komertzioentzako egitasmoa da

Merkataritza alorra bultzatzeko aditu baten laguntza izango dute Erandioko dendariak; Sektorean Profesionalizatzeko eta Barriztatze Plana abiarazi du Udalak. Zehazki, aditu batek komertzioek dauzkaten hutsuneak aztertuko ditu aldaketak eta hobekuntzak proposatzeko ondoren. Gura duten herriko komertzioek parte hartuko dute, gehienez 40k.

Dendan bertan gauzatuko dute azterketa edo diagnostikoa. Aditu batek idatziko ditu txostenak; hutsuneak detektatu eta konponbideak proposatuko ditu, bakoitzaren neurriari. Salmenta aurreikuspena, lokalaren irudia hobetu, bezeroen-

tzako promozio erakargarriak diseinatu edota bezeroari arreta hobetzeko neurriak zehaztuko ditu adituak.

Uztailerako amaituko dituzte azterketok. Ondoren eta urtebeteko epean, aztertutako komertzioen %80 merkatuaren kompetentzia egoeran bizirauteko moduan egongo ei da Udalak iragarri duenez. Baina haren iritziz, aurre egin beharreko arriskurik handiena dira azpiegitura komertzialak, herri barrukoak zein kanpokoak.

Merchandising, ekonomiko kudeaketa eta politika komertzialean prestatuko dituzte parte-hartzaileak. ○

19AN DOAN, BAGINAREN BAKARRIZKETAK

Martxoaren 19an antzetzuko Txalo taldeak *Baginaren elkarrizketak* lan ezaguna euskaraz Altxagan, azoka zaharrean. Emanaldia 20:00etan hasiko da eta sartzea doakoa izango da. Obraren helburua da emakumeak euren sexualitatearekiko sentitzen duten errutik zein lotsatik libratzea. Gehien antzetzuko den testu garaikideetako da; izan ere, eztabaida piztu izan du, dinamika sortu du eta moldeak apuratu ditu, eta lotsarik barik, argi eta garbi azaltzen du emakumeen sexualitatea; betiere umorez eta samurtasunez. Jatorri desberdineko 200 emakumeri egindako elkarrizketak ditu oinarri testuak. Aitziber Garmendiak eta Ainhoa Garaik antzetzuko dute.

GIDATZE ERAGINKORRA IKASTAROA, IZENA EMAN

Krisia eta erregaien afera gora eta behera, modako ikastaroa eskainiko dute Erandion, Gidatze eraginkorrari buruzkoa. Gaztelaraz zein euskaraz emango dute. Apirilaren 15ean izango da ikastaroa, baina izena aurretik eman behar da, apirilaren 1a baino lehen. Postetxe zaharrean egingo dute, 16:30etik 20:30era, eta doan.

Izena emateko: Gazte Informazio Bulegoa

EGIN LITEKE, APELLIDUA EUSKALDUNDU!

Izen-abizenak euskarazko grafiaz ipintzeko kanpaina abiatu du Bizkaiko Aldundiak: *Apellidos abizendu*. Bizkaiko 60.000 etxetan baino gehiagotan jasoko dute haren barri; zehazki, 27 udalerritan, Erandio tarteko. Izena euskaratzeko edota euskal abizenak euskarazko grafiaz idazteko egin beharreko urratsak jasotzen ditu postontzietan utziko duten triptikoak. Grafia aldatzeko erregistro zibil edo epaitegira hurbildu behar da, bertan ematen duten orriagaz hainbat agiri aurkeztu behar da. Izena edota abizena zelan geratuko den ikusteko Euskaltzaindiaren webgunera jo daiteke.

Garaizar
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Ileta kalea 1 • ALGORTA

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?



Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

IGOGAILUAK
ARLAN
ASCENSORES

Arazoei agur... **Tf. 902 54 08 54**

www.arlan.biz

PARTE HARTZEA IÑAKI DEUNAN ETA SERTUTXAN

Sopelako Udalak Iñaki Deunan eta Sertutxa kaleetan herritarren parte hartze prozesua abian jarri zuen urtarrean, aurretik Iberre auzoan egin zuen legez. Urtarrilaren 18an egindako bilera 50 bat auzokide agertu ziren, eta bertan euren kezka, proposamen eta iritziak plazaratu zituzten. Guztira, 150 proposamen batu zituzten, honako gaien inguruan: aparkalekuak, plaza hobetzea, garbiketara, segurtasuna e.a.

APRENDEH PROIEKTUAREN ARGAZKI ERAKUSKETA

Plaza Beltza Kulturguneak erakusketa barria izango du martxoaren 14tik aurrera. Larrabasterrako Akilino Arriola kaleko egoitzara gerturatzen diren lagunek Apendeh proiektuaren argazki erakusketaz gozatzeko aukera izango dute, apirilaren 1era arte.

HOBEKUNTZAK IZANGO DIRA ATXABIRIBILEN

Atxabiribil hondartzako aparkalekuaren inguruan hainbat obra egingo ditu Sopelako Udalak. Hobekuntzak honakoak izango dira: ibilgailuentzako eta oinezkoentzako sarbideak, zonalde berdeak eta gizarte ekipamenduak. Gainera, lurzoru publikoan 52 aparkaleku barri eraikiko dituzte. Atxabiribil etorbideetik Kukullu kalera bide barria ere egingo da. Erabakia otsailaren 24an hartu zuen Sopelako Udalbatzak.

BISITARI GEHIAGO JASO DITU SOPELAK 2010EAN

Sopelako Turismo Bulegoak eta Informazio Guneak 13.507 bisitariari emon zion zerbitzua. Turismoak, beraz, gorakada nabarmena izan zuen 2010. urtean, 2009. urtean baino 2.215 bisitari gehiago jaso zuelako. Kontsulta gehienak, dena den, Sopelan eta Euskal Herrian bizi diren herritarrek egin dituzte.

Kontzertua udabarriagaz Udabarri Jaia eta Bide Ertzean taldearen emanaldia izango da martxoaren 25 eta 26an



Kontzertua ETBko "Gazte Live!" saiorako zuzenean grabatuko da

Martxoaren 21ean udabarria helduko zaigu urtero legez, eta neguari hurrengora arte esateko sasoia helduko zaigu. Urtaro barriari ongi etorria emateko, Sopelan urteroko jaia antolatu dute martxoaren 25ean. Udaletxe plazan izango da, eta goizeko 12:00etan lore banaketa egingo dute herritarren artean. Bestalde, haurrentzako jolas parkea eta tailerrak izango dira, bi txandatan: goizeko 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Udabarria, baina, musikagaz girotuta helduko da Sopelara. Izan ere, mar-

txoaren 25ean, barikuan, Bide Ertzean taldeak kontzertu akustikoa eskainiko du Kurtzio Kultur Etxean. 22:30ean hasiko da, eta emanaldiaz gozatu gura duenak 6 euro ordaindu beharko du. Tolosaldeko boskoteak "Don Inorrez" disko barria aurkeztuko du, eta kontzertua ETBko "Gazte Live!" saiorako grabatuko da zuzenean. Bide Ertzean zortzigarren diskoa da "Don Inorrez", eta taldekideen arabera, euren "ohiko esparrura" bueltatu dira, hots, euskarazko pop kutsua duten kanta intimoa eta akustikoa. ○

Iraide Olalde > 'Maite maitea' VII. lehiaketaren irabazlea

"Nire bizitza pertsonalean ez dut horrelako maitasun gutunik idazten"



Madriren beste lehiaketa batzuetara aurkezteko asmoa du 22 urteko berangoztarrak

Otsailaren 14agaz batera, herri askotan maitasun gutunen lehiaketak antolatzen dira urtero. Sopelan 'Maite Maitea' lehiaketaren VII. edizioa ospatu dute aurretik, eta 19-60 urte bitarteko kategorian Iraide Olalde berangoztarra izan da txapeladuna.

—Horrelako txapelketa batean parte hartzen duzun lehenengo aldia da?

—12 urtegabeko gabonetako istorio laburren beste lehiaketa bat irabazi nuen, baina maitasun gutunen lehiaketa batean parte hartzen dudana lehenengoa da, bai. Lagun batek komentatu zidalako animatu nintzen.

—Gutunak idazterako orduan zure bizitza pertsonalean oinarritu zara?

—Ez dira gutun pertsonalak, ez ditut nik bizi izan ditudan esperientzietan oinarritzen. Lehiaketan bi gutun aurkeztu ditut. Lehenengoak, alkarregaz 40 urte daraman bikote baten istorioa kontatzen du; gizonak andra uzten du eta desagertu egiten da, gaixo dagoelako eta

ez duelako gura emakumeak egoera horretan ikustea... Bigarrena, neska batek mutil bati idazten dion gutuna da, eta bertan beragaz zergatik egon gura ez duen azaltzen dio.

—Pertsona oso erromantikoa izan behar da horrelako gutunak idazteko?

—Ez, ni ez naiz pertsona oso erromantikoa, nire bizitza pertsonalean ez dut horrelako maitasun gutunik idazten. Inspirazioa edozein lekutatik etortzen zait, istorio guztiak asmatzen ditut.

«Inspirazioa edozein lekutatik etortzen zait, istorioak asmatzen ditut»

—Beste lehiaketaren batean parte hartzeko asmoa duzu?

—Madriren beste lehiaketaren batera aurkeztuko naiz. Izan ere, kazetaritzan lizentziaduna naiz eta apirilean, Madri- lera noa erreportalismo eta ikerketakazetaritzari buruzko master bat egitera, komunikazio eskola batean. ○

DIDAK hamilton IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA iKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net



EGUNKARIAK prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero, etxera eroango dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

UMEENTZAKO ZINEMA ETA ANTZERKIA, IKUSGAI

Hiru hilabete beteko ditu aurki Santa Anako 'Berango Antzokia'-k, eta antzerki zein zinema emanaldiak jarraituko du aurrerantzean ere. Hori bai, martxotik aurrera sarrera kobratzen hasiko dira, oraindino tasak zehaztu ez dituzten arren. Zinema eta Berangoko kultur taldeen emanaldiak, barriz, doan izango dira. Martxoaren 20an, umeek "Midas erregearen altxorra" pelikula ikusteko aukera izango dute, arrastiko 17:30ean. Martxoaren 26an, Deabru Beltzak taldearen eskutik "Nora zoaz Txanogorritxu?" antzerki emanaldia izango da, 18:00etan. Bertan, Txanogorritxuren ipuinaren gaur egungo bertsio multimedia kontatuko dute. Hurrengo egunean, barriz, gaztetxoaren txanda izango da. "Mystikal" abenturazko pelikula eskainiko dute, arrastiko 17:30ean.

ERDU TXOTX EGITEN ASTIGARRAGARA!

Aurten ez baduzu aukerarik izan txotx egiteko, ezin duzu pasatzen utzi apirilaren 9an Kultur Etxeak prestatu duen egunpasa. Egun horretan Astigarragara urteera egingo dute berangoztarrek. 09:30ean urtengo dira Moreagatik; nagusiek Iturraren baserria eta lorategi botanikoa bisitatuko dute, eta txikiak, kandelagintza tailerra egingo dute. Bazkaria Petritegi sagardotegian izango da, 14:30 aldera, eta buelta, 20:00 aldera. Egun osoak 20 euroko prezioa izango du nagusientzat, eta 10 eurokoa umeentzat.

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

Mozorroa, gorde barik Martxoaren 19an eta 20an txinatar aratus- teen kalejira eta Maskarada izango da.



Simon Otxandategi Dantza Taldeak antolatzen du urtero Maskarada

Mozorrotzeko gogoagaz jarraitzen duzula? Berangon aratusteak martxoaren 19an ospatuko dituzte, beraz, oraindino baduzu aukera lotsak alboratzeko eta mozorroa janzteko! Aurtengo gaia Berangon Txina izango da.

Gai horri helduta, jaitsiera egingo dute arrasti erdialdean, Berangoetako Kultur Etxetik abiatuta, pilotalekuraino. Kalejira Deabru Beltzak taldeak alaituko du, eta parte-hartzaileek Txinako jantzi tradizionalak eroango dituzte. Behin frontoira helduta, ospakizunak aurrera egingo du. Bertan ume-

entzako dantzaldia izango da, eta gura duten herritar guztientzako txokolatada.

Hurrengo egunean, urtero lez, maskaradaren txanda helduko da. Simon Otxandategi dantza taldeak herriko auzo gehienak zeharkatuko ditu. Lantzarten hasiko dira goizeko 11:15ean. Horren ostean, Angxane igaro, eta Karabigane eta Karabiazpiraino igoko dira. Dantza taldeko kideen azken emanaldia Sabino Arana kalean izango da, eguerdiko 13:15 aldera. Pilotalekuan, txikiak dantza emanaldia eskainiko dute. ◯

Javier Sierra > Goskoa Merkatari Elkartearen idazkaria

“Indaba txapelketagaz herria piztu eta giroa sortu gura dugu”



Txapelketagaz batera, Toni Gomez artisauaren putxera-erakusketa izango da

Martxoaren 19an I. Indaba Txapelketa antolatu du urtebete egingo duen Gorlizko Goskoa Merkatari Elkarteak. Urtean zehar hainbat ekitaldi prestatzen dituzte Goskoako lagunak; martxoaren 5ean, esaterako, aratuste bereziak antolatu zituzten herriko hainbat tabernatan.

—Zer dela eta erabaki duzue Indaba txapelketa egitea?

—Jendeak eskatu ebalako antolatu dugu. Txispas Tabernako jabe eta bezeroen artean sortu zen ideia, eta guri oso ideia ona iruditu jakun. Batez ere, beti gabiltzalako pentsatzen zelan egin herria apur bat pizteko eta giroa sortzeko.

—Zer egongo da egun horretan?

—Txapelketa gastronomikoa bada ere, gehienbat koadrilan eta lagunartean egoteko eguna izango da. Txapelketa goizeko 08:30ean hasiko da Iberrebarri plazan; trikitalariak egongo dira eguerdia

eta poteo ordua alaitzeko. Toni Gomez Balmasedako artisauak bere putxerak erakutsiko ditu, eta ikusleen artean putxera bat zozketatuko dugu. Txapelketa, dena den, ez da putxera txapelketa, edozein eltze edo lapikogaz parte har daiteke. Izena aurretik emon behar da.

—Zelan ikusten duzue Gorlizko mer-

**«Gorlizko irudia
dendagune lez indartu
behar dugu»**

kataritzaren osasuna?

—Jendeak uste duena baino eskaintza handiagoa dago. Lo egiteko herria izan da urteotan, baina berpizten ari da, auzokide gazte gehiago dagoelako. Gorlizko irudia dendagune lez indartu behar dugu, erosketak egiteko gune normalean izan behar du Elkartearen 40 bat kide gaude, merkatariaren erdiak, baina aurten gehiago izatea espero dugu. ◯

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27. behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

Torrene 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratigorta@gmail.com

irati
OPARIAK MODA GAZTEA

KOSKA
irratia 108 FM



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)



INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

'OPORRETAN TXANGORA' EGITASMOA ABIAN!

Lehen Hezkuntzako ikaslea bazara eta Aste Santurako planik ez baduzu... "Oporretan Txangora!" aukera ona izan daiteke egun dibertigarri batzuk pasatzeko! Apirilaren 27an Sopuerta abenturara eta El Pobaleko burdinolara egingo dute ibilaldia; 28an Arrikruzeko kobak eta Arantzazu bisitatuko dituzte; eta 29an Donostiako Zientziaren Kutxagunera eta Haizearen Orrazira egingo dute txangoa. Derrigorrezkoa izango da hiru txangoetan parte hartzea, eta prezioa 20 eurokoa izango da. Uribe Kostako Mankomunitatearen egoitzan, web orrian edo telefonoan emon behar da izena, martxoaren 18a baino lehen.

NUTRIZIOARI BURUZKO HIRU SAIO GORLIZEN

Olatz Bilbao Lasak nutrizioari buruzko hiru saio eskainiko ditu Gorlizko Kultur Etxeko erakusketa aretoan. Martxoaren 14an, 21ean eta 28an izango dira, arrastiko 19:00etan, eta hainbat gai jorratuko dituzte: loditasun gaitzak, fibromialgia, hormona-egoerak...

PLENTZIako XXIV. MENDI URTEERA, 27AN

Matrako Eguna eta gero oraindino Ermu mendi ingurura joateko gogoakaz jarraitzen baduzu, martxoaren 27an beste aukera bat izango duzu. Txixiripatxarrak, Gaminiz Kultur Elkarteak eta Plentziako Udalak antolatuta, XXIV. mendi urteera izango da. Nagusientzako urteera 08:30ean izango da.

URIBE KOSTA-BUTROE

Biotopo babestua sortzeko eskatu dute



Eskualdean "balore oso garrantzitsuak" daudela ondorioztatu du EHUk

EHUK egindako txostena oinarri hartuta, hainbat eragile ekologistak Uribe Kosta-Butrore eremua "biotopo-babestua" izendatzeko eskatu diote Eusko Jaurlaritzari. 2010. urtean Lakuako Ingurumen Sailak Uribe Kosta-Butrore eremuari buruzko txosten zientifikoa egiteko eskatu zion Euskal Herriko Unibertsitateari.

Zazpi doktoreen laguntzagaz, EHUk eskualdeko paisaia, geologia, landareak, fauna eta interes kulturalako ondarea iker-

tu zuen. Landa lana, EHUko artxibategia eta beste autore batzuen txosten teknikoak izan dira metodologia. Txostena loteslea da, eta Uribe Kosta-Butroeko paisaian, geodibertsitatean eta ondare kulturalan "balore oso garrantzitsuak" daudela ondorioztatu du. Era berean, zonaldea babesteko aholkatzen du. Ingurumen Sailak "babestutako gunea" izendatuko duela adierazi du, baina hainbat eragile "biotopo babestua"-ren formula hautatzeko eskatu diote. ○

Mar. 14 - Mar. 28

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

URDULIZ

► **Euskal inauteriak.** Kultur Etxean. Martxoaren 14tik aurrera.

SOPELANA

► **Aprendeh proiektuaren argazki erakusketa.** Plaza Beltza Kulturgunean. Martxoaren 16tik aurrera.

PLENTZIA

► **Araldiren argazki lehiaketako lanak.** Goñi Portalen. Martxoaren 16tik aurrera.

GETXO

► **Roman Aginakoren akuarelak.** Algortako Kultur Etxean. Martxoaren 21etik aurrera.

MUSIKA

GETXO

► **Sin banda.** Areetako Glass Kafean. Hilaren 17an, 20:00etan. Doan.

► **Barry Kerr eta Ruben Bada.** San Patrizio folk kontzertua. Algortako The Piper's Irish Puben. Martxoaren 18an, 22:00etan. Doan.

► **Planeta leta.** Algortako The Piper's Irish Puben. Martxoaren 24an, 20:00etan. Doan.

LEIOA

► **Red House.** Kultur Leioako Ambigun. Hilaren 18an, 22:00etan. 6 euro.

ERANDIO

► **Dantzaldia Galea orkestragaz.** Altzagako azoka zaharrean. Martxoaren 20an, domekan, 17:30ean.

SOPELANA

► **Bide Ertzean.** Kurtzio Kultur Etxean. Martxoaren 25ean, 22:30ean. 6 euro.



Geltokia plazako postuetan dasta daitezke gaztak

► Azoka

Gazta usainak hartuko du Algorta

Idiazabal, Erronkari, gazta urdina, behi, ardi edota ahuntz esneaz egindako gaztak dastatu ahalgo dira Algortan lau egunez. Barriro ere gaztaren hiriburu bihurtuko da; izan ere, martxoaren 17tik 20ra izango da Gazta Azoka, urtero legez eta zazpigarenez aurtan. Geltokia plazan ipiniko dituzte gaztagileek postuak eta bertan eskuratu ahalgo dira gazta mota asko, baita dastatu ere! Hainbat jatorritako ekoizleak hurreratuko baitira Algortara. Goizez 11:00etatik 14:30era zabalduko dute azoka, eta arrastiz, 17:00etatik 21:30era. Dagoeneko iritsi zaizu sudurrera gaztaren lurrin gozoa?

• **Non:** Algortako Geltokia plazan • **Noiz:** Martxoaren 17tik 20ra

GORLIZ

► **Lirain Txiki eta Gazte abesbatzak.** Elizan. Martxoaren 26an, 20:00etan.

► **Zine kluba: Amador.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Martxoaren 25ean, 21:00etan. 2,90 euro.

ZINEMA

GETXO

► **Zine kluba: Un hombre soltero.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Martxoaren 18an, 21:00etan. 2,90 euro.

LEIOA

► **La montaña mágica.** Kultur Leioan. Martxoaren 19an eta 20an, 17:30ean. 3 euro.

BERANGO

► **Mystical.** Berango Antzokian. Martxoaren 27an, 17:30ean.

ANTZERKIA

ERANDIO

► **Baginaren bakarriketak.** Altzagako azoka zaharrean. Martxoaren 19an, 20:00etan. Doan.

GORLIZ

► **Txotxongiloak.** Ikastetxean. Martxoaren 26an, 18:30ean.

BERANGO

► **Nora zoaz Txanogorritxu?** Berango Antzokian. Martxoaren 26an, 18:00etan.

BESTEAK

GORLIZ

► **Indaba txapelketa.** Iberrebarrin. Martxoaren 19an, 12:00etan.

LEMOIZ

► **Hitzaldia: "Itsas ondarea eta arrantza tradizionala", Juan Apraiz.** Armintzako kultur etxean. Martxoaren 19an, 12:00etan.

SOPELANA

► **Hitzaldia: Ahaztuak 1936-1977.** Plaza Beltza Kulturgunean. Martxoaren 17an, 20:00etan.

ERANDIO

► **Hitzaldia: "Artearen historiatik pasatu diren emakume artistak".** Postetxe zaharrean. Martxoaren 23an, 19:30ean.

LEIOA

► **Dantza zirkuitua: Ras!** Kultur Leioan. Martxoaren 26an, 12:30ean eta 18:00etan. 5 euro.

PLENTZIA

► **Mendi ibilaldia.** Udaletxetik. Martxoaren 27an, 08:30ean.

OINUTSIK
KONSULTA PODOLOGIKOA
Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)


Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

VASA



KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA

BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Euskal aratusteak

Giro ederra sortu zuten Sopelako Ander Deuna Ikastolako ume, gazte zein helduek martxoaren 4an Urko Kiroldegian ospatutako aratuste jaian. Euskal Herriko txoko ezberdinetako pertsonaiak batu ziren Urkon: lamiak, mamotxorroak, joaldunak, txatxoak, atorrak e.a. Dantza, musika eta barre algara artean aratusteetako euskal ohiturak eskualdera hurreratu zituzten; gora ohitura zahar eta herrikoiak!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Astrabuduarrak mendian

Polarra, gore-tex materialdun jaka zein botak, eta eskularru potolorik barik pentsaezina da askorentzat gaur egun mendira joatea neguan. Ematen du beti erabili izan direla horrelakoak... ezta gitxiago ere. Argazki hau dugu horren erakusle. Astrabuduko Atxazpe Mendi Taldeak utzitako irudian ikus daiteke zer-nolako janzkera erabiltzen genuen duela ez hainbeste urte, poz-pozik joaten ginen mendira. Ez dakigu zehazki noizkoa den argazkia, 60ko edo 70eko urteetakoak uste dugu. Irudi ederra eta aitzakiarik barik utziko duena bat baino gehiago mendira igotzeko nagitasuna daukanean.

Atxazpe Mendi Taldeak utzitako argazkia

[berbetan]

Oraingoan ez dugu zine izarrik edo azken eleberria aurkezten duen idazle ezagunik ekarri atal honetara. Tartetxo bat eman gura izan diogu bizirik dirauen hurbileko historiari. Semeak eman zigun Begoña Mentxakaren (Getxo, 1926) istorioaren barri. Malko artean kontatu dizkigu umetan harrapatu zuen 36ko gerraren bizipenak, eta irribarrez deskribatu digu Lopetxene baserriko bizimodua. Inoiz ez du omenaldirik jaso eta martxoaren 8an etxeko lanak egin zituen, ohi bezala. Historia arrunta da berea, liburuetan letra larriz idazten ez dena, baina gure herriaren bihotz taupaden zati dena. Jose Luis Quesadak, Mentxakaren senarrak ere, bere ekarpena egin dio berbalditxoari.

Begoña Mentxaka

Itsasontzi batean, herritik kanpora

Testua: **Maitane Nerekan** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Getxon jaio, hazi eta hezitakoa zara zu, ezta?

—Bai; ni, gurasoak, aitite-amamak. Lopetxenen, baserrian, jaio gara ia denak.

—Zer gogoratzen duzu herriko lehengo bizimoduaz? Zertan aldatu da?

—Erabat aldatu da. Egia esan, gerra hasi arteko bizimoduaz ez dut gauza lar gogoratzen. Ez ginen baserritik ateratzen eta oroitzapen gutxi ditut. Gainera gero, gerra heldu eta dana hankaz gora jarri zuen.

—Albiste txarrak arin heldu ziren orduan; zelan hasi zen Gerra?

—Zelan hasten dira gerrak, bada? Nik ezagutu dudana behintzat, fundamentu barik. Hamar urte baino ez nituen eta ez nintzen gertatzen zenaz guztiz jabetu. Gaur egungo hamar urteko umeek gehiago dakite; garai hartan, korrika eta olgetan ibili eta listo! Martikonen ematen genuen eguna, lantzarretan; Alangon, etxe bakarra zegoenean... besterik ez. Alangora komedianteak etortzen ziren uda partean; interes handia pizten

zuten. Auzoko guztiak elkartzen ginen; Algortako goiko aldekoak, Trinitarios ingurukoak ere hurbiltzen ziren. Bakoi-tzak eserlekua eroaten zuen etxetik. Erabat ezberdina zen inguru hau garai hartan, ez zeukan zerikusirik. Algorta asko aldatu da; orain, kalera urten eta ez dut Algortako jenderik topatzen. Nebak galdetzen zidan: “Algortako inor ikusi duzu? Nik behintzat ez”. Neba orain hamar urte hil zen.

“Alangora komedianteak etortzen ziren udan; auzoko guztiak batzen ginen, baita Algortako goiko aldekoak ere”

—Buelta gaitzen barriro Gerra kon-tuetara; zelan heldu zen albistea?

—Oso gogorra da hori gogoratzea. Faxistak Galeatik sartzen ari ziren. Portu Zaharreko babeslekurako bidean geunden eta Juana Learrak, familiako lagunak, abisua eman zigun: “Ez zaitzete Portu Zaharrera jaitsi, faxistak hemen

daude-eta”. Buelta erdia hartu eta etxera joan ginen aitari abisua ematen; aita Ezker Errepublikanoko kide zen. Ez zuen sinetsi. Horregatik, janaria bildu eta Portu Zaharrerako bidea hartu genuen barriro, baina ez ginen bertara heldu; Portu Zaharra eta Fadura lotzen zituen babeslekuak, lur azpitik. Familia asko batzen ginen babeslekuan, Portu Zaharrekoak eta ingurukoak.

J.L.Q: Babeslekura sirenak jotzen zuene-

an jaisten ziren, hegazkinak hurbiltzen zirenean.

—Ez da horrela. Sirenak jotzen zuenean, ez geneukan Portu Zaharrera jaisteko astirik. Horrelakoetan, “Casa Barco” inguruan zegoen babesleku txikiago batera joaten ginen. Amak beldur izugarria zien hegazkinei eta, horregatik, eguna



babeslekuan ematen genuen eta gaua pasatzeko itzultzen ginen etxera. Ezjakinak gu! Gauean ere hegazkinak hurbiltzen baitziren.

—**Baina, egun hartan, aitak ez zuen arrazoirik izan...**

—Aita Udaletxera joan zen eta bertan jakin zuen albistea egia zela. Aitaren lagun baten bitartez, haragia garraiatzeko erabiltzen zen Hiltegiko kamioia lortu eta Santanderrera alde egin genuen. Kamioian, familia osoa joan ginen, neba zaharrena izan ezik; Gerrak eroan zuen neba, Burdin Gerrikoan hil zuten. Santanderretik, Frantziarako itsasontzia hartu genuen, amak eta ahizpak alde batetik eta nik bestetik; aita Santanderren lotu zen. Nirea, ikatza garraiatzeko ontzia zen. Amak esaten zuen komuneko zulotik behera eroriko nintzen beldur zela; komunak egur zatiz egindako eserleku zaharrrak baitziren.

—**Hamar urtegaz, familiagandik urrun...**

—Kolonía batera eroan ninduten, beste ume batzuek batera. Ez dut ondo oroitzen pasarte hura, baina, kontatu didatenez, herriz herri joan behar izan genuen leku bila, dena beteta baitzegoen. Azkenean, Saint Nazairen jaitsi gintuzten itsasontzitik. Ni lehengusuakaz joan nintzen koloniarra. Baserrian danak alkarregaz bizi ginen; batzuk alde batean, besteak bestean eta beheko solairuan, Txiskifietarrak. Kamioian danak alkarregaz alde egin genuen Frantziara, Algortako beste batzuek batera. Gerrako pasarteak oso gogorrak egiten zaizkit; ezin ditut gerra filmak ikusi. Saint Nazaire-tik beste herri batera eroan gintuzten; Getxoko emakume bik zaintzen gintuzten, ondo zaindu ere. Uda zela gogoratzen dut eta hondartza artifizial txikia zegoela. Nik ez dut oroitzen, baina garai hartako Getxoko alkatea gugaz zegoela esan didate. Ez dakit zenbat hilabetez egon ginen bertan.

—**Ama eta ahizpa bitartean non zeuden?**
—Eurek egun batzuk beranduago hartu

zuten itsasontzia eta herriz herri ibili zituzten, ez dakit non jaitsi zituzten arte. Umeak lehenago bidali gintuzten, Santanderren hegazkinen beldur ginelako. Ama eta ahizpa, herrira eskutitzak bidaltzen ibili ziren; gure aldetik, lehengusina zaharrena arduratu zen herrira eskutitzak bidaltzeaz. Horrela, Algortan zegoen Juana Learrakoari esker, amak

“Faxistak Galeatik sartzen ari ziren; guri Portu Zaharreko babeslekurako bidean gindoazela heldu zitzaigun albistea”

non geunden jakin zuen. Ondo gogoratzen dut, ume bakoitzak zenbaki bat geneukala esekita, patata zakuei jartzen zaien horietakoa; horri esker aurkitu gintuzten. Frantzian danak alkartu eta denbora luzez egon behar izan genuen bertan; zaila zen herrira bueltatzeko dokumentazioa lortzea. Jende asko geunden Frantzian eta kaosa itzela zen. Ez dute bat ere puzten filmetan gerra erakusten dutenean; kaosa horrelakoa zen. Korrika alde batetik bestera; horrela galtzen ziren umeak. Horrela galdu ziren gure lehengusuak.

—**Frantzia eta gero Algortara heldu zinetenean, zer aurkitu zenuten?**

—Lopetxene, baserria, zigilatuta zegoen. Hutsik zegoen; oso ezaguna da gerra garaian dagoen arpilatzea. Paperak kon-

“Ez dute batere puzten filmetan gerra erakusten dutenean; kaosa horrelakoa zen. Horrela galtzen ziren umeak”

pondu genituenean, Basagoiti familia eta San Inazioko apaizaren laguntzagaz, baserriara sartzea lortu genuen.

—**Nolakoa zen gerra osteko bizimodua?**

—Zoriontsuagoa behintzat bai. Aitak erbestean jarraitu behar izan zuen, Bartzelonan eta Frantzian. Dena kendu ziguten eta amak gogor egin behar izan

zuen behar. Ni 13 urtegaz hasi nintzen beharrean, Zuricalday gozotegian, mandatari. Amak txerrikumeak, oiloak, untxiak eta ahateak erosi zituen; ortuak ere bagenituen, bat Lopetxenen eta bestea Faduran. Horri esker, aurrera egitea lortu genuen. Umeek azalak batzen genituen, txerriak elikatu ahal izateko.

—**Gerra osteko egunerokoa zelakoa izan**

zen: eskola, olgetak...

—Kalean olgatzen jarraitu genuen; Martikonen, Alangon eta Landan. Hemendik hara ibiltzen ginen, familia giroan. Eskolara ezin izan nintzen bueltatu; ama saiatu zen San Inazio eskolara bidaltzen, baina gorriak ginenez... ez ziguten utzi. Portu Zaharreko mojetara joan nintzen; emakume ederrak ziren eta dira. Denbora gutxi eman nuen bertan, beharrean hasi nintzelako.

—**Gorriak zinetela eta ezin eskolara joan. Estigmatizazioa nabaria zen gerra ostean?**

—Eskolan gure kontra egiten zuten; gorriak eta horrelakoa esaten zizkiguten irain moduan. Ez genuen hori gustuko. Behin zinera joan, ilara luzea itxaron eta nire txanda heldutakoan ez zidaten sar-

—**Getxoko eta bertoko bizimodua gustuko duzu?**

—Bai noski; ez dut besterik gura. Denak joan daitezela; ni ez naiz mugituko. Dena dut gustuko. Zer da itsusia hemendik? Hala ere, esan behar dut gaur egun kaleak eta bizi kalitatea hobea den arren, lehengo bizimodua gurago dudala. Kalean ematen genuen eguna, lasai eta zoriontsu. Ez zegoen errepiderik, ezta kotxerik ere. Gure amamak horrenbeste kotxe ikusiko balitu... lehen astoak besterik ez ziren ikusten Martikone inguruan. Hiltegia hemen genuenez, behiak ere ikusten ziren noizean behin. Landako (oraingo Konporte) errementeriarra zaldiak ere eroaten zituzten, ferratzerara.

J.L.Q: Behin, ama eta alaba gaixorik zeudenez, txerriak hiltegitara eroan behar izan nituen. A zer komeriak!

—Pentsa egizu; Areetakoa izanda, ideiarik ez zeukan baserri beharraz.

—**Bizimodua ezberdina dela esan duzu hasieran, baina zertan nabaritzen duzu hori gehien?**

—Orain gu gara arrotzak Algortan. Algorta ez da Algorta. Suposatzen dut, hori herri guztietan gertatu dela. Baserria zegoen lekuan, garajea eta lonja daukagu orain; garajeko atek baserrikoak dira.

Lopetxene eta La Landa izeneko tabernak daude bertan. Hainbeste aldatu da, ezagutu ere ez dudala egiten. Euskal Herria kalea eta ingurua Benarren lurra ziren; soroan zerbait falta zenean, amak Benarregana bidaltzen gintuen, azaloro edo bestelakoak eskatzera. Untxia hil, oiloak hil... horrela joaten zen eguna; hain zen ezberdina dana! Gabonak, San

“Alangon San Juan jaiak indar handia zuen; hiltegiko matarifeak antolatzen zuen dana”

Inazio jaiak... itzelak ziren. San Inazioak tradizio eta fama handikoak ziren, ez gaur egunekoak bezala. Hondartzan barrakak, erromeria goian... San Juan jaia ere garrantzitsua zen Alangon; gaur egun ospatu ere ez da egiten. Gure jaia zen San Juan, auzokoena. Hiltegiko matarifeak antolatzen zuen dana. Hori desagertu egin da; gu, hori bizi genuenok, desagertu garen bezala.

—**Azken urteotan hainbat omenaldi egin zaizkie Gerra Zibileko biktimei. Zer iritzi duzu horien inguruan?**

—Niri behintzat ez didate inoiz horrelako omenaldietarako deitu; horregatik, ezin dizut esan zelakoak diren. Ezin dut

esan gustuko ditudanik; neba zaharrena aste betez gerrara joan eta ez zen sekula bueltatu. Inork ez digu ezer argitu horren inguruan. Ez dakigu gorpua non dagoen ere; esan digutenez Burdin Gerriko inguruko hobi komun batean egon daiteke. Hala ere, inoiz ez digute horrelako omenaldietara deitu.

—**Gerran bizitakoaz, pasartetxo bat gel-**

ditu zaigu bidean. Nola lortu zuen aitak herrira bueltatzea?

—Frantzian lotu behar izan zuen denbora luzez. Amak Dantzarineara (Nafarroa) eroaten gintuen, bertatik muga pasa, aita ikusi eta janaria erroteko; kupoa zegoen eta, tarteka baimena ematen zioten amari pasatzeko. Batzuetan umeak bidaltzen zituzten, bakarrik, janaria erroteko; baina amak ez zuen gura guk bertan zein baldintzatan bizi ziren ikustea. Aitak 14 urte pasa behar izan zituen Frantzian gura zuena esateagatik. Ilusio handiz hartu genuen herrira heldu zenean, baina berari asko kosta zitzaion beldurra kentzea.○

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....

Kalea/zenb.....Herria.....

e-mail..... Telefonoa.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bateuro

Kontu zenbakia (20 digito)

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□





Itxaropen irribarreak

Haizea Amezaga (Bilbo, 1983) getxoztarra Cisjordaniako Belen herrian egon zen joan den Eguberrietan eta udan auzolandegi batean beharreen. Kamera hartuta hara eta hona ibiltzeko tartetxoak ere hartu zuen. Palestinarren irribarreek txunditu zuten Amezaga. Bizi duten egoera latzean irri egitera zerk bultzatzen dituen galdetzean, eurenak *“itxaropen irribarreak”* direla erantzun zioten. *“Zoriontsu izateko itxaropena”* aurkitu zuen Palestinan eta horrek airean uzten duen magiak sorgindu zuen.

Argazkiak: **Haizea Amezaga**











BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO




GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Zinema eta opera bat

Algortako kirol portuko **zineman** ematen hasi dira **opera**, Europa eta Errusiatik



Coppelia operaren irudi bat

Ekimen barritzailea abiatu dute Algortako kirol portuko zinemetan: opera eta balleta ematen hasi dira. Zuzenean egiten dute konexioa Europako eta Errusiako hainbat hiriburutako antzokiakaz, izan ere, Circuit Catala de Cinema Digitalagaz egin du akordioa Getxo zinematik enpresak.

Otsailaren 7an eman zuten Händelen *Giulio Cesare* Parisko Operatik. Martxoaren 6an, barriz, Moskuko Bolshoi Antzokitik eman zuten *On Xixote*, eta hilaren 8an, Veneziako La Fenicetik Pucciniren *La Bohème*.

Baina beste hainbat ikuskizun aurreratu dituzte. Martxoaren 24an Milaneko

La Scalatik emango dute Mozarten *Flauta magikoa*, eta 28an, Parisko Operatik *Coppelia*. Sarreraren prezioak 13 eta 16 euro artekoak dira, aurretik erosiz gero.

Krisi egoerak bultzatu ei ditu Getxo Zinematik enpresako arduradunak ekimen barriak abiatzera. Gaur egun ezin bizi daitezke zinema jardueragaz baka-

“Hilaren 24an emango dute Flauta magikoa eta 28an Coppelia”

rrik eta ideia barritzaileak sortzera behartuta ei daude. Horregatik hasi dira opera eta balleta ematen, baina beste hainbat erabaki hartu dituzte. Esaterako, proiektore digitalak jartzen dabilta eta filmak hiru dimentsiotan ematen hasi dira. Gainera, eguenetan bi sarrera ematen dute baten prezioan, bonozinema atera dute eta eguneko azken saiora 5 euroren truke sar daiteke. Urtebetetzeak ere ospa daitezke Getxo Lauren zinemetan. Hori dena bezeroak erakartzeko helburuagaz.

Baina ekonomikoa ez da asmo bakarra, Getxori eskaini gura omen diote kultura, eta Kirol Portuan merkatala jarduera bultzatu. Izan ere, pantaila hutsaren hurrena liteke inork begiratu ez balio. ○

Arabiar musika euskal senez

Al Jazeera telebistan ikus daitezke Fermin Muguruzaren musika erreportajeak



Martxoaren 17an emango dute hurrengo dokumentala

Dagoeneko Fermin Muguruzaren erreportajeak ematen hasi da Al Jazeera telebistaren dokumental katea. Arabiar herrietako musikari buruzko erreportaje sorta zuzendu du Irungo musikariak: Next Music Station (Hurrengo geltoki musikala) izenburua dauka multzoak.

2010ean bisitatu zituen bederatzin herrialde eta 80 musikarigaz bildu zen Muguruza. Emaizta ikus daiteke 11 dokumentaletan: Egipto, Maroko, Libano, Tunisia, Siria, Kuwait, Bahrain, Yemen eta Sudango musika jaso du.

Orain arabieraz ematen ari dira erre-

portajeak, baina apiriletik aurrera, ingelesez ere ikusi ahalko dira, Al Jazeera English katean. Herrialde arabiar horiek ezagutarazi ditu Muguruzak dokumentalotan, hango musika eta musikarien bitartez. Gainera, asteotan “zonaldea astintzen ari diren matxinadak hobeto ulertzeko ere balioko dute”.

Martxoaren 17an eta 18an eskainiko dute Egiptori buruzko bigarren erreportajea, Kuwait eta Bahraini buruzkoa 24an eta 25ean, eta Yemeni buruzkoa, martxoaren 31n eta apirilaren 1ean. ○

info+: www.nextmusicstation.com

Audience > ikuskizun barria

Audience plays Amerikanuak ikuskizuna estreinatuta barri du Gernikako Audience taldeak, Amerikanuak dokumentalaren soinu bandarako sortutako abestiak joko ditu zuzenean dokumentalaren irudiak ematez batera; iazko Donostiako Nazioarteko Zinemaldian aurkeztu zuten Nacho Reig eta Gorka Bilbaok zuzendutako dokumentala. Blues, rock edota folk doinuak erabili ditu Audiencek 19 abestiotan. Musika amerikarraren erroak eta aukera barrien bila joandako pertsonen istorioek bat egiten dute, irudiek eta soinuak bat egiten duten bezala. Elorrioren ikus dezakezu Audience martxoaren 18an, Arriola Aretoan eta 20:00etan.

info+: www.weareaudience.com

kontzertua > San Patrizio egunez

Irlandar festa Getxora iritsiko da aurten ere, Algortako The Piper's Irish Pubera. Oraingoan Barry Kerr eta Ruben Bada musikariak gonbidatu dituzte San Patrizio eguna ospatzeko. Kerr gaita zein flauta jotzaile eta abeslariak ekarriko digu Irlandako folk doinua. Egungo eszenako musikari ezagunenetakoa dugu Kerr. Ruben Bada asturiarrak jotzen du bouzoukia eta gitarra. Dixebra rock taldeko kide da eta europar musikariakaz elkarlanean jardun ohi da. San Patrizio egunez ere, alkarregaz aritzeko asmoz hurrengotako dira Kerr eta Bada Algortara. Emanaldia gaueko 22:00etan hasiko da eta sartzea doakoa izango da.

diskoa erosteko: www.hotsak.com

diskoak

Metal of the world
Vhaldemar
Stormspell



Zortzi urte eta gero lan honeguz bueltan dator Barakaldoko Vhaldemar taldea, “inoiz baino heavyago”. Diskoa grabatu dute The Rockstudios-en eta Pedro J. Mongek ekoitzi du. 90eko urteetan sortu zen taldea eta hirugarren diskoa dute hau. Aurreneko biak Europa, Japon eta Amerikan argitaratu dituzte.

Cronicas locales
Edu Basterra
Baxter Sounds



Edu Basterra euskal sortzaileak goi mailako jarduerara ageri du bakarrean egindako hirugarren lan honetan. Hamaika urteko isilunaren ostean, puntako hainbat musikariek lagundu diote: Carlos Velasco, Borja Barrueta, Jose Luis Canal eta Daniel Amat, besteren artean. Rock, blues, jazz, pop, denetarik dakar.

Puro infierno
Vendetta
Baga Biga



Vendetta taldearen dantzarako ska eritmoek indarra, jatorrasuna, alaitasuna, jai-giroa eta batez ere, irribarrea itsatsirik dakarte. Iruindarren disko barria kalean da eta laster hasiko dute aurkezpen bira: Tolosa, Leizua, Ondarru, Bermeo zein Gasteiz bisitatuko dituzte martxoan eta apirilean, Euskal Herrietik kanpora joan baino lehen.



Abant

Basarrate 20 Ionia 48991 (Algorta-Getxo) Tf. 94 404 91 65 - 656 70 31 61

- **Psikopedagogia eta Eskola Orientazioa**
- **Ikaskuntzaren zailtasunak**
(idazketa, irakurketa, ulermena, dislexia...)
- **Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza**

etorri
eta
ikusii!

MORIXA

liburudenda

Alargorta 8 (Eskal' Herria kalegea bar)
Tf. 94 491 68 05
Algorta

Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bixitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[liburuak]

Lemoizetik Lemoizera

Zentral nuklearraren afera birpasatzen du
El contubernio nuclear, Lemoiz liburuak


Juan Luis Olan Sustatxa lemoiztar kazetariak herriko Zentral nuklearraren afera birpasatzen du *El contubernio nuclear, Lemoiz* izeneko liburuan. Ondorio handiak eta larriak ekarritako egitasmoaren alde ilunak agerian ipini ditu. Iberduero konpainia elektrikoak Lemoizen egindako hastapeneko mugimenduetatik hasi eta gaur arteko ibilbidea kontatzen du. Lemoizeko zinegotzi izan zen Olan 1987tik 1999ra; Arabera kultur taldeak argitaratu du liburua.

Zentralaren historia ez zegoen idatzita eta horren beharrak bultzatu zuen Olan liburua egitera: *“Gauza asko esan eta idatzi dira, baina gehienetan ez ziren egia, Iberdueroren aldetik, hedabideen aldetik, ekologisten aldetik zein pro-nukle-*

“Zentralari buruz gauza asko esan da, baina gehienak ez dira izan egia”

arraren aldetik; aztertu eta gauza batzuk zuzendu gura izan ditut”.

Lemoizeko zentral nuklearra ez zuten martxan ipini azkenean. Franko bizirik zegoela eraikitzen hasi ziren, 1972an. Atal bi izan behar zituen, baina lehenengo baina ez zuten amaitu. Erregia kargatzea besterik ez zuenean falta egitas-



Otsailean aurkeztu zuten liburua Armintzan

moa gelditu zuen 1984an Espainiako PSOEren gobernuak, Felipe Gonzalez presidente zela, herritarren borroka eta presioa zela-eta. Hamar urte beranduago betiko bertan behera utzi zuten zentralaren proiektua.

Zentrala eraikitzen hasi eta ia 40 urtera dator *El contubernio nuclear, Lemoiz*, bertako herritar batek idatzita, gainera. Halere, hamarkadak igarota, afera ez dago guztiz garbi; izan ere, zentrala dagoen lekuan bestelako egitasmo bat garatzeko dabilta. Otsailaren 19an aurkeztu zuten liburua Armintzako kultur etxean, erakusketak lagunduta. ○

liburuak



Sakoneta
Xabier Mendiguren Elizegi
Elkar

Sakoneta, Abiadura Handiko Trenari lekua uzteko desjabeturiko baserrian, hamaika pertsonaia batu da. 24 ordu eskasean guztien ametsak eta beldurrak gurutzatuko dira. 48 kontakizun laburretan horien guztien barri emango du egileak umore maltzurrez.



Bilboko historia inoiz...
A. Saiz/J. Saez de Tejadarena
Ediciones Maquerutas

Labayruk itzulita, euskaraz eta gazteleraz aurkeztuta dago *Bilboko historia inoiz kontatu ez den bezala* lana. Karola kaiok Maritxu angulari Bilbo erakutsiko dio, azalpen eta argibide historikoak emanez. Egun batzuetan Mames lehoiak lagunduko die.

[kirola]

Getxo Artea, ohore handiz

Errugbiaren elitera bueltatuko da Fadurako taldea, zilarrezko kategorian urte bi egon ostean



43-21 gailendu zen L. Abelles talde valentziarraren kontra, luzapenean

Dagokion kategoriara bueltatuko da Getxo Artea urte biko etenaldiaren ostean. Otsailaren 20an, L. Abelles talde valentziarraren aurka jokaturako partiduan 43-21 gailendu zen talde getxoztarra, markagailuak kontrakoak iradoki zezakeen arren, partidua azken unean erabaki zen. 80 minutuak amaitu zirenean, Fadurako taldeak 23-21 irabazten zuen, baina itzulian valentziarrek ere puntu biko alde atera zuten, luzapenera jo behar izan zuten. Luzapenean, baina, Getxo Artea nabarmen gailendu zen, eta hiru saio egin ostean, garaipena eskuratu zuten, Ohorezko Mailarako txartela lortuz.

Orduan heldu zen zoramena Fadurara. Partidu osoan zehar jo eta su bere jokalariek animatzen ibili ziren 1.500 zaletuak garaipena ospatu eta “hirugarren-denbora”-ri hasiera emon zioten. Izan ere, jokalariek egindako behar onaz gain, Fadurako zaletuak babesa eta indarra ezinbestekoa izan zen garaipena eskuratzeko. Andres Escondrillas Getxo Arteko administrazio arloko zuzenda-

riak adierazi duenez, *“une txarrenean ere zaletuak animatzen jarraitu dute, oso ondo baloratzen dugu euren jarrena”*. Hala ere, puntu bal-tzik aipatzekotan, honakoa azpimarratzen du Escondrillas: *“Errugbian badago ohitura polit bat, aurkariaren zigor kolpe jaurtiketetan txistua ez jotzea, eta hori une ba-tzuetan ez da bete, eta pena eman digu”*. Garaipenaren ospakizunak Faduran hasi, eta Algortako tabernetan jarraitu zuten.

Fadurako 1.500 zaletuak babesa ezinbestekoa izan da garaipena eskuratzeko

Hurrengo urtean, mailari eustea izango da Getxo Artearen helburu nagusia: *“Hori lehen taldearen xedea izango da, eta beheko mailatan, gazte, kadete eta eskolan egiten den beharra sendotzea izango da beste helburu nagusia”*. Ohorezko mailara heldu diren arren, oraindino zer hobetu badagoela uste dute Getxo Arteko lagunek: *“Bide onetik goaz, baina lar falta zaigu kirol-talde handi bat izateko”*. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**Kantxa
Kirol moda**



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

Itsasoruntz ekimena > maiatzaren 28an “bustitzera” deitu dute

“Prozesua atzeraezina egiteko herritarren parte-hartze aktiboa beharrezkoa da”

Orain lau urte 275 surflarik aldarrikatu zuten euskal presoak Euskal Herriratzeko Algotan, ekimen ikusgarri hartan ezagutu genuen Itsasoruntz ekimena. Maiatzerako prestatzen dabiltza sorpresa barria.

—Azal egiguzue, zer da Itsasoruntz?
—Uribe Kostako herritar taldea gara, ideologia desberdinetakoak. Itsasoarekiko maitasunak batu gintuen. Gure asmoa jendearen artean zabaltzeko batu genuen 275 bat surflari Algortako Portu Zaharrean, 2006ko urrian. Egitura politikoetatik at jaiotako dinamika herrikoia eta parte-hartzailea da, malgua eta bateratzailea. Euskal Herrian zabaltzen ari den prozesu politikoari bultzada ematea da gure helburua; elkarrizketa eta akordioa sustatuz. Bide horretan, erakargarriak izan daitezkeen ekimenak bultzatzen ditugu.

—Maiatzean ekitaldia egingo duzue?
—Ikusgarria izan zen lehena, orain nazio mailako izaera eman gura diogu, eta 400dik gora lagun batu. Elkarrizketa zein akordioa aldarrikatuko dugu, eta hori gauza dadin, alde guztien legitimazioa. Hauteskundeak gertu, maiatzaren 28an egingo dugu, eragozpenik ez eragiteko, eta Algortako Portu Zaharrean. Musikariak, bertsolariak, gonbidatu bereziak eta giro ederra izango dira. Parte hartzera gonbidatuta dago herritar oro. Uretan sartzeko materiala egongo da denentzat eta ez da aditua izan behar.

—Beste hainbat gauza ere egin duzue.
—2010eko ekainean berragertu gineneztik lauzpabost. Azken prozesuaren porrotak lehorrera eroan gintuen, baina Euskal Herrian zabalduak aukera berriak



info+: itsasoruntz.nireblog.com

berriro uretaratzera bultzatu gaitu. Birritan izan gara Guggenheimgo uretan, Aste Nagusira ere Bilbora gerturatu ginen, eta azaroan ehun bat surflari batu ginen Bizkaiko Zubi parean.

—Beti landu duzue gai bera?
—Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoaren zati diren korapilo guztiak (pre-

“Ekimenari nazio izaera eman gura diogu eta 400dik gora lagun batu; ez da surfean jakin behar eta denentzako materiala egongo da”

soak, iheslariak, ilegalizazioa, indar politzialen presentzia, biolentzia mota ezberdinen biktimen egoera...) jorratu behar dira, horri urtenbidea emateko. Orain arte elkarrizketa zein preso eta ilegalizazioaren gaiak landu ditugu, baina zuzenean edo zeharka, esparru guztietan aritu gura dugu, ekimen irudimentsuak, plu-

ralak eta parte-hartzaileak sustatuz.

—Zergatik horrelako formatua?
—Surfak aukera eskaintzen digu ekimen ezberdinak eta erakargarriak egiteko. Batetik, ekimenetan parte-hartzeko ez da beharrezkoa surfean aritzea. Bestetik, lehorrean ere ekimenak bultzatzea aztertzen ari gara, laster ezagutaraziko ditugu.

—Etorkizunean ere jarraituko al duzue lanean?

—Gatazka politikoa dagoen bitartean bai, noski. Prozesua atzeraezin egin gura badugu, guztiz beharrezkoa da herritarren parte-hartze aktiboa. Gauzak horrela, “bustitzera” deitu gura ditugu herritar guztiak. ○

Fredi Paia

Basaratoste eta aratoste II

Aurreko alean aratosteak egitegian lekutu eta ikertzaile ezbardinek ospakizunaren zergatiak esandakoa agertu gendun. Gatxa da naturagaz hartu-emona etendako gure pentsakeratik antxinako ekintzen esangura ulertzea. Eta oraindino, askoz gehiago da ez dakiguna dakigula uste doguna baizen.

Aratosten ganeko bigarren idazkun honetan akabuko urteetan gure eskualdeko aitaita-amamen ahotik batutakoaz egingo dogu berba. Beti bere, aurreko alean esaten gendun legez, aratosteak denboran zehar debekuen artean bizirik iraun behar izan dabela ahaztu barik.

Gure eskualdean aratosteak lotutako ospakizunak aratoste domeka baizen aste-bete lehenago hasten dira. Aurreko domekari basaratoste, basabatiste edo kanporamartxo esaten jako gurean. Neska-mutil gazteak alkartu eta basoetara joaten ziran arrautz eta txarrikiak hartuta. Landaminak izan ohi ziren mendiko ospakizunak egiteko hautatutako lekuak. Landaminak baldintza bereziak beteten dabezan landak dira. Urburuak egoten dira euren inguruan, sarri aristiz inguratuta dagoz, ez da irarik hazten eta *bedar-usaintxu* edo mantznilaren moduko sendabelarrak aurkitu geinkez bertan. Geobiologiaren ikuspegitik, lur azpiko korronteak, harman lerroak ohi baino alkarregandik parajeago eta puntu patogenoak izaten dabez.

Beraz, gure eskualdeko neska-mutilek landaminetara jo eta *txitxi-burruntzi* egiten eben. Horren ostean euren arteko dantzak izan ohi ziran tarteko musikaririk baegoan. Erandio inguruan jai honeri esateko erabiltzen daben *kanpora-martxo* terminoak argibideak emoten deuskuz jai ulertzeko orduan. Izan bere, artzain kulturaren *marti* edo martxoaren neguaren ikurra da. Orain kontatuko ez deusuegun ipuin batek emoten deusku horren barri. *Marti kakatsu*,



Neska-mutil gazteak alkartu eta basoetara joaten ziran arrautz eta txarrikiak hartuta

aprilaren sartu natsu!

Basaratosteren hurrengo domekea aratoste da. Tostadak egin eta *maskarite* nahi

“Gure eskualdeko neska-mutilek landaminetara jo eta txitxi-burruntzi egiten eben”

muserange jantzita etxerik etxe ibilteko eguna zan, aratoste martitzena legetxe. Mutilak neska eta neskak mutil moztortzeaz izaten zan ohikoena. Gorlizen aurpegia baltzez eta gorritz margoztu ohi eben, erdiz erdi. Horretarako kortxo erre eta piper hautsa erabiltzen zan. Batzuek *maskaritek* erosi arren, gehienek trapu zuri zulotuak

erabiltzen ebezan. Txorizoak oliotan konterbetako erabiltzen ziran *txarri-puxikek* puztu eta alkar joteko erabili ohi ziran. Barrikan ardi-narru, adar eta artaburuakaz egindako *muserange* zaharren barri emon deuskue, baina gerraostetik aurrera betiko desagertu ei ziran. Lemoizeko Sarakotxetan (*Zoragetxo* testu zaharretan) esaterako, *txotoporro* izeneko moztortzearen barri emon deuskue. Txotoporro deabrua ei da eta iretargian ikusi leiteke *zotzarde* eta guzti betirik dagoanean. Begi eta belarri handi, adarrak, buztan lumatxua eta fraka nahi kapa gorria jantzita bihurtzen ziran txotoporro. Horrez ganera, indianu janztea, edo ameriketatik etorritako senitartekoek ekarritako erropak erabiltea bere ohikoa izaten zan. ○

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



portu zaharra bar
 Portu Zaharra kalea 35
 48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
 Tf. 94 460 20 33
 portuzaharra@portuzaharra.com
 www.portuzaharra.com



SOLAETXE
 Eguneko menua **Jatetxea** Karta
 Asteburuko menua Oilasko erretegia
 Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantsolaetxe.com



La Triangu.
 Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



berezi
 Hanburgesak Ogitartekoak
 Sanwichak Plater konbinatuak
 SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
 ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



UK Taberna
 Mariandresena 1, Algorta



txakoli mota gane tx. txakolina
 Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio
 Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



UNAI TABERNA
 WWW.UNAITABERNA.COM
 94 466 16 61
 URGULL KALEA 2, (ALGORTA)

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[gaurko aukera]

Unai taberna

Txapelketa mailako pintxoak Algortan



Urgull kalean dago Unai taberna

Orain urtebete pasatxo zabaldu zuen taberna Unai Paredesek. Algortako Urgull kalean dago Unai taberna, Gurea Zinema zenaren aurrean. Paredesek Tarragonan izan zuen jatetxea sei urtez, Getxora itzuli aurretik. Hemen ere sukaldari lanean jardun zuen taberna zabaltzeko aukera suertatu zen arte, eta ez doakio batera txarto.

Eguneko nahiz gaueko girorako tartea dago Unai tabernan. Aste barruan, astelehenetik eguenera gosariak eta txikiteoak daukate indarra, pintxoak eta ardoa ez dira falta. Ardo ona ere dasta daiteke, oraintsu inportatu du ardo berezia Paredesek.

Pintxoak aipatu ditugu, aste akabuetan egiten ditu berezienak eta gozoenak, izan

ere, aste barruan ohikoagoak izaten dira, "gosea kentzeko modukoak". Baina jaiegunitan "Donostian gisako pintxoak dasta daitezke".

Sukaldaria izanik, Paredesek berak prestatzen ditu mokadutxo gozoak. Eta ez pentsa beti gauza bera topatuko duzunik, izan ere, denboraldiaren arabera eta merkatuan topatutakoaren arabera sortzen ditu pintxoak. "Gogora datorkidana egiten dut, dagoenaren arabera eta sormenaren arabera", azaldu du. Ohiko txikiteoak asteburu goizetako bueltan gozaten dute jakioak.

Baina Unai tabernan gazteek ere badute tokia, batez ere bariku eta zapatu gauetan hurbiltzen dira gehienak. Deneztako giroa, guztientzako topaketu. o

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
 Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!
 Alangobarri 10, ALGORTA
 Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



ARTAZA ETXEA
JATETXEA
 • gosariak
 • txuletoia • bakailoa
 • arrain freskoa
 asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz
 Erreserbak: 94 463 03 92
 Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA



BASARTENA
URDULIZ
 Teléfono: 946 761 128



Taberna Berri
 Sarrikobaso 4 -ALGORTA
 Tf. 94 430 64 93



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Ariñuze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarrí 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA

HARTU TXANDA

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixareriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

Uuribefm 107.8

Gorliz Irratio

[horoskopoa]

<p>URA</p>  <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Txotx garaiari erabat sartuta gaude eta zu oposizioak prestatzen, ezingo zara lagunak sagardotegira joan, baina lasai, zure sagardo dosia ere edango dute-eta...</p>	<p>OTSOA</p>  <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Lagunak kristoren kanika taldea osatuko duzu eta hurrengo Joko Olimpikoetara joateko prestatzen hasiko zarete, baina zein herrialdegar parte hartuko duzue?</p>	<p>ADARRA</p>  <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Dagoeneko Aste Santurako eta udarako plana egiten, ez da gutxi geratzen bada! Has zaitez hurrengo asteburua prestatzen, gozatu unea, eta gero gerokoak!</p>
<p>AITZURRA</p>  <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Azterketak amaitu eta gainditu dituzu, atsedena merezi duzu, baina ez horren lasai hartu. Dagoeneko lanean bazabiltza, ez zaitez izan horren alferra.</p>	<p>HOSTOA</p>  <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Aratusteak joan dira baina zuri bardin dizu, edozein egun ona da mozorroa janzteko. Ken egizu maskara eta zabaldu ingurukoengana, bizitza ederragoa izango da-eta!</p>	<p>EGUZKIA</p>  <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Sagardotegiagaz nahikoa ez eta hurrengo asteburuan parranda itzela daukazu herrian, erromeria eta guzti. Apirila lasaiago hartu beharko duzu, bestela...</p>
<p>GARIA</p>  <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Loteria egokitu zaizu azkenean, zorionak! Baina euro bi besterik ez dira izan; har egizu trago bat lagunak, hori bai, trago bakarra guztiarentzat, izan ere euro bigaz...</p>	<p>LASTOA</p>  <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Mendirra joango zara eta iratxo batek zure desioak beteko ditu. Bat-batean esnatuko zara belardian botata. Ondo gosaldur hurrengo batean, mendira joan aurretik...</p>	<p>IRATZEA</p>  <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Lirain eta eder, pinpila pauxa ematen duzu hegaka, lore batetik bestera saltoka, dantzan, pozik eta alai. Ene bada! Udabarria ohi baino lehenago iritsi da zuenera.</p>
<p>META</p>  <p>(Irailak 17 urriak 16) Gogoko lagunak musu emango dizu eta pozarren jarriko zara. Gombida egizu zinemara, kontzerturen batera, edota paseoan; lasaitasunez hartu eta ondo pasa!</p>	<p>HAZIA</p>  <p>(Urriak 17 azaroak 15) Lagun batek ortua ipini du eta dagoeneko uzta ematen hasi da. Zergatik ez duzue inaugurazio bazkaria antolatzen? Indaba sasoiak joan da, baina beste gauza asko daukazue aukeratzeko.</p>	<p>NEGUA</p>  <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Txuleta ez duzu gustuko eta sagardoa ez asko, baina bakailaok zorutzen zaitu. Sagardotegira joango zara Gipuzkoa aldera eta parranda itzela egingo duzu. Biharamunean a zer astelehena!</p>



NORA EUSKAL HERRIA

Bideak zabalduko dizkigu gure lurraldeak miatzeko eta ezagutzeko.


Eskuratu
KIOSKOAN: Hilabetero 2,5€ ordainduta
BERRIA egunkariarekin batera

ETXEAN: Harpidetza eginda, hilabetero etxean urtean 24€ ordainduta.
Kioskoan baina %20 merkeago.

Harpidetza egiteko:
TELEFONAZ: 943 30 35 54
POSTA ELEKTRONIKOZ: harpidetza@nora.aldizkaria.info
WEBGUNEAZ: www.nora-aldizkaria.info



Zutabe eta lerro guztien baturen emaitzak idatzirik dituzula kontuan izanik, eman ezazu animalia bakoitzaren balioa.



ez horren gazetxoak < bilatu eta irabazi > gazetxoak

Zein herrialdetan egindakoak dira Fotografia ataleko argazkiak?

> Aurrekoaren erantzuna: Maribel Salas

> Irabazlea: **Iñigo Gutierrez***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Nor da Pirritx eta Porrotxen lagun mototsduna?

- Txiribiton
- Marimotots
- Marimatraka

> Aurrekoaren erantzuna: Aratusteetan

> Irabazlea: **Asier Garcia***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA

Oinutsik
kontsulta podologikoa

Zubigane 4, Sopelana
Tf. 94 404 74 20
oinutsik@euskalnet.net



SARIA

La Gusana
liburudenda

Tellagorri plaza, Algorta
Tf. 94 491 14 12

lagusana

Bidalari erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



MIREN LARREAK ATERATAKO ETA UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

PORTU ZAHARREKO NESKA-MUTILAK, 1981

San Antonio baseliza Martiartun, Erandio eta Leioa arteko mugan dugu. Garai baten ekainaren 13an, erromeria famatua izaten zen bertan. Algortako Portu Zaharreko neska-mutilak ere hainbat urtetan joan ziren bertara (Faduratik joaten ziren) eguna pasatzera, janari eta guzti, baina ez San Antonio egunean. Portuko Miren Larreak antolatzen zuen txango hau. Miren, antolatzailea izateaz gainera, argazkilaria ere bazen eta Martiarturako bidean zihozela, hor jarri zituen denak baserri baten aurrean. Esan digutenez argazkigintzan gazte-gaztetan hasitakoa da eta Portu Zaharra ezagutzeko aukera parebakoa ematen digu bere lanak. ○

Zutunik: Juanjo Gonzalez, Gorka Garcia, Iñaki Garcia, Joserra Blanca, Ricar Olmos "Murua", Iñigo Zulueta, Mikel Alvarez "Centollo", Jaime Tamayo, Juan Miguel Intxaurtieta, Bego Royo, Ana Blanca.

Makurtuta: Marta Bretos, Marta Dominguez, Laura Ardanza, Leire Paternain, Itziar Gomez, Gualber Royo, Marcos Bretos, Jonathan Galin, Josu Bretos, Karol Tamayo.

Oharra: 190. zenbakiko argazkian, Pepa eta Mari Karmen ahizpen izenak trukaturatu daude; horrez gain, Mari Karmen Bolinaga eta Mari Jose Rios-en izen osoak falta dira.

[aitormenak]

IKER MUNIAIN > Athletic-eko jokalaria

“Braveheart pelikulan egingo nuke protagonistaren papera”

Testua: **Julen Nafarrate**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Alaia eta asmo handikoa.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Braveheart pelikulan.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun?

Entrenatzaile izan nahi nuke.

Zure hautzaroko oroitzapen bat?

Eskolako jolastokian, Iñigo Perez lehengusuarekin jolasean.

Badukazu ohitura txarren bat?

Batzuetan ezetz esatea kostatzen zait.

Aitor dezakezun bizio bat.

Sunny-ak edatea.

Zein da zure ametsetako bat?

Gabarra ateratzea.

Barriz egingo zenukeen bidaiarik badago?

Oraindik ez dut bidaia gehiegi egiteko aukerarik izan.

Animalia izango bazina, zein izango zinateke?

Titulu gosea duen lehoia izango nintzateke.

Zer barik ezin zaitezke bizi?

Senide eta lagunik gabe.

Zerk ematen dizu beldurra? Zergatik?

Heriotzak, ezezaguna delako.

Parrandarik politenak non?

Parrandarik onenak San Ferminetan, uste dut ez dudala gehiagorik esan behar, kar-kar-kar...

Euskal Herriko zure txoko kuttuna?

San Mames. o

LABURREAN— Markak hausten dituen jokalaria da Iker Muniain Athletic-eko jokalaria gaztea (Iruñea, 1992). Aurrelari iruindarra 2005. urtean heldu zen Athletic-eko harrobira, Txantreatik. Geroztik, hainbat kategoriatan ibili da aurkarien defentsak zorabiatzen. 2009. urteko uztailearen 30ean Athletic-eko lehen taldeagaz debutatu zuen, Young Boys talde suitzarraren aurka. Hilabete bat geroago, ligako bere lehen partidua jokatu zuen, 16 urte besterik ez zituela, eta Athletic-eko lehen taldeko kamisetagaz jokatu duen jokalaririk gazteena bihurtu zen Muniain. Ligako historian ere gola sartu duen jokalaririk gazteena da iruindarra. Zein izango ote da bere hurrengo marka?



Hemen dituzu gidabaimena euskaraz ateratzen lagunduko dizuten **Getxoko autoeskolak:**

> **ALGORTA AUTOESKOLA**
• Andres Cortina kalea, 6
Tel. 94 460 94 43

> **AMEZTI AUTOESKOLA**
• Amezti kalea, 9
Tel. 94 491 09 15

> **ARIAS AUTOESKOLA**
• Mesedeetako kalea, 28
Tel. 94 463 88 57

• Bidezabal kalea, 14
Tel. 94 430 11 44

• Gobelaurre kalea, 13
Tel. 94 463 00 19

> **GETXO AUTOESKOLA**
• Salsidu kalea, 20
Tel. 94 430 25 71

> **PRECIADO AUTOESKOLA**
• Makaleta etor. 83
Tel. 651 961 901

> **SAN INAZIO AUTOESKOLA**
• Telletxe kalea, 13
Tel. 94 460 00 45

> **URIBE KOSTA AUTOESKOLA**
• Urkiola kalea, 4
Tel. 94 430 06 05

Azterketa teorikoa euskaraz egiten duten gazteei:
• **klase praktiko bat doan!**
• **Europar zehar ibiltzeko interrail bidai baten zozketan parte hartzeko aukera**



OHARRA: Bizkaian, azterketa teorikoa nahiz azterketa praktikoa egin daitezke euskaraz. Bizkaiko Trafiko Zuzendaritzan 3 aztertzaile euskaldun dabilta eta, eskatuz gero, azterketa praktikoa euskaraz egiteko aukera dago.



GONBIDAPENA

Etorri eta erakutsi zure babesa
euskararen aldeko konpromisoa
hartuko duten elkarteei

Martxoak 25, 19:00
Fadurako areto nagusian

HITZARMENEN IZENPETZE EKITALDIA
GETXOKO KULTUR ELKARTEETAN EUSKARAREN ERABILERA
SUSTATZEKO HITZARMENA



GETXO EUSKALDUNTZEKO HITZARMENA

987i+u
KULTURA